

2013

**KOLDO ELEIZALDE
LITERATURA LEHIAKETAK
XXVIII. edizioa**



**Ipuina • Bertsoak • Komikia
Txistea/Umirezko pasadizoa**

Bergarako Udaleko • Euskara Batzordea

Argitaratzailea:



**Bergarako Udala
EUSKARA**

Laguntzailea:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Koldo Eleizalde Lehiaketak

XXVIII. edizioa 2013 Bergarako Udala

Euskara Batzordea

2013

KOLDO ELEIZALDE

LITERATURA LEHIAKETAK

XXVIII. edizioa

Bergarako Udaleko Euskara Batzordea

Ipuina

Bertsoa

Komikia

Txistea
Umorezko
pasadizoa

2013

Antolatzailea



Bergarako Udala
EUSKARA

Laguntzailea

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



Argitaratzailea: Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzua

Azaleko irudia: Jon Balentziaga

Diseinua eta maketazioa: Gertu Inprimategia. Oñati.

Inprimategia: Gertu Inprimategia. Oñati

Lege gordailua: SS 44-2015



Aurkibidea

SARRERA	5
----------------------	---

Ipuina

1. taldea:

Saria: Ipuin sorgindua . Leire Martinez	7
Saria: Baserritar langilea . Olatz Arregi	11
Saria: Urdintxo eta Pox . Kepane Gonzalez	15

2. taldea:

Saria: Besteak bezalakoa izan nahi zuen lore zatarra . Nagore Pelicano	19
Saria: Aratz Atlantidaren bila . Ekain San Martin	23
Saria: Sonbrila magikoa . Ekain Olaziregi	27

3. taldea:

Saria: Iluntasunaren eguna . Amaia Alonso	31
Saria: Sara Kanariar Uharteetan . Oihane Altube	37
Saria: Etorkizuneko problema . Unai Sampietro	43

4. taldea:

1. saria: Akabo hiru lagunen arteko adiskidetasuna . Miren Txurruka	47
2. saria: Lehoi baten bihotza . Mikel Miner	53
3. saria: Nire eguneroko maitea . Miren Carnicero	57
Unibertsoaren beste aldean . Xabier Iparragirre	63

5. taldea:

1. saria: Lixiba usaina . Elene Etxaniz	79
2. saria: Agur polit bat . Nerea Mujika	85
3. saria: Bazuen legaturik . Ana Moñux	97

Bertsoa

1. taldea:

Saria: Nire baserria. Gerald Joel Sanchez, Josu Elizburu eta Julen Murgiondo	117
Saria: Bergarako bertso eskola. Josu Gaztelu eta Markel Laskurain	121

2. taldea:

1. saria: Gazteria. Jon Mata	125
2. saria: Oporretako egun bat. Maider Jauregi eta Marina Juaristi	127

3. taldea:

1. saria: Ama Euskaraz. Urko Egaña	133
2. saria: Ilusioa lana bihurtzen denean. Nerea Madariaga	137

Komikia

1. taldea:

Saria: Hotelean. Irati Iñarra	141
Saria: Estralurtarra. Uxue Guadalupe Gantxegi	143

2. taldea:

1. saria: Postre ederra. Joseba Carnicero	145
2. saria: Ilunpean. Miren Carnicero	147

3. taldea:

1. saria: Gorabeherak. Jon Erramun Iraegi	149
2. saria: Gomuta politak. Gorka Martin Gonzalez	151

Txistea eta umorezko pasadizoa

1. taldea:

Saria: Itsasoan galduta. Iker Manso	153
Saria: Elkarri tiroka. Nicole Suarez, Maria Ondo, Jorge Luis Chavez, Adonis de Jesus Ventura, Gerald Joel Sanchez eta Merlyn Garcia Estrad	155



Hitzaurrea

Ohi bezala, aurtengoan ere, Bergarar ugari animatu dira Koldo Eleizalde literatur lehiaketan parte-hartzera.

Eskuartean duzun liburua Bergararron literaturaren erakusleihoa da, batzuen sorkuntza erakusgai jartzeko eta besteen literatura gosea asetzeko balioko duena.

Liburu honetan lehiaketako idatzizko generoetako saridunak ageri dira baina Koldo Eleizalden badira hemen agertzen ez diren generoak ere: antzerkia, ipuin-kontaketa... Genero horietan aurkeztutako lan guztiak www.bergarakoeuskara.net webgunean (<http://bergarakoeuskara.net/grabaketak>) ikusi eta entzun daitezke. Baita hemen idatziz agertzen diren bertso eta txistek ere. Webgunean, gainera, aurreko urteetako lanak ere aurki daitezke. Irakurri, ikusi, entzun eta gozatu.

Bukatzeko, zorionak partehartzaile guztioi eta urte guzti hauetan lehiaketa aurrera eramatea posible egin duzuenoi.

Maren Belastegi
Euskara batzordeburua

Ipuinak

Lehenengo taldea
Saria



Leire Martinez

Ipuin sorgindua

Ipuin sorgindua

Bazen behin Pepito izeneko iratxo bat.

Ipuin sorgindu bat zeukan baina berak ez zekien ipuin hori sorginduta zegoenik. Eta orduan, Pepito ipuin barrura sartu zen. Pepitori ipuinean Juanito deitzen zioten. Gaua iritsi zen eta Pepitok ez zeukan etxerik, baina ibili eta ibili gaztelu bat aurkitu zuen eta atea jo zuen:

–Tok-tok-tok.

Printzesa batek zabaldu zion eta esan zion:

–Zein zara?

–Ni Pepito naiz baina ipuinean Juanito deitzen didate.

–Nahi baduzu gazteluan lo egin dezakezu.

–Bale.

–Sartu.

Gero zerbitzariak afari goxo-goxo bat prestatu zuten. Ondoren ohera joan ziren eta hurrengo egunean indartsu batek ikusi zuen eta galdetu zion:

–Zein zara?

–Ni Pepito naiz baina ipuinean Juanito deitzen didate.

–Nahi duzu nire etxera etorri?

–Bai.

Gero berak oso bazkari goxoa prestatu zuen, baina esan zion Juanitok indartsuari:

–Niri printzesak prestatu zidan afaria gustatzen zait.

Orduan indartsua triste jarri zen.

Gero, Juanitok bere etxera joateko asmoa zuen, baina ezin zuen eta orduan, bidean, lamiak bat ikusi zuen eta lamiak esan zion:

–Zein zara? Eta zer egiten duzu hemen?

–Ni Juanito naiz.

Orduan lamiak bere kobazulora eraman zuen eta afaria prestatu bitartean Juanitok esan zion:

–Zer daukazu afaltzeko?

–Oilaskoa patata erreekin.

Gero, afaltzen ari zirenean, esan zuen Juanitok:

–Ze goxoa! Zurekin bizi naiteke?

–Bai! Iupi! Iupi! Iupi! Iupi!

Orduan, lagun guztiei esan zieten etortzeko lamiaren kobazulora, han festa haundi bat egin behar zutela eta. Orduan guztiak lanean hasi ziren eta pirata bat, globoak eta beste hainbat gauza jarri zituzten.

Gero bakoitza bere etxera joan zen.

Eta hau hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila ipuineko plazan.

Ipuinak

Lehenengo taldea
Saria



Olatz Arregi

Baserritar langilea

Baserritar langilea

Bazen behin baserritar langile bat. Bere izena Juan txo zen.

Bazuen baratza bat barazkiz betea. Egun batean, Juan txoren biloba Garazik zera eskatu zion:

–Aitona, joan naiteke bihar zure baratzerara?

Juan txok baietz esan zion. Gau hartan sorgin gaizto batek baratza sorgindu zuen. Hurrengo egunean, Juan txo eta Garazi joan zirenean, Garazik zera esan zion aitona Juan txori:

–Aitona, baratzean usain txarra dago, ezta?

Sorgin hura Zugarramurditik etorri zen. Gainera baratzeako barazki guztiek hitz egiten eta ibiltzen zekiten. Juan txok eta Garazik harriturik begiratzen zieten.

Hurrengo egunean Garazik Zugarramurdiko sorgin gaiztoa ikusi zuen, eta orduan, azkar-azkar, aitona Juan txori telefonoz deitu zion. Eta hurrengo egunean Juan txok esan zion Garaziri:

–Gaur gauean, 10:00etan, baratzerara joango gara.

–Ados –esan zion Garazik.

Baratzean itxoiten egon ziren ea noiz helduko zen sorgin gaiztoa. Egun hartan sorgin hura ez zen baratzerara joan. Orduan Juan txok esan zion baratzeako tomateari:

–Mintxi, sorgin gaizto hori ikusten duzunean deitu niri eta esan: Juan-
txoooooooo! Sorgina!

Orduan, Mintxi tomateak sorgina ikusi zuenean esan zuen:

–Juantxxxxxxxx! Sorgina!

Juantxo ziztu bizian joan zen baratzerara eta sorginaren makila magikoa
hartu zuen, eta esan zion sorginak:

–Juantxo gaiztoa! Itzuli nire makila magikoa!

Eta Juantxok esan zuen:

–Joateko ziztu bizian sorgina Zugarramurdira! – Eta sorgina desagertu
egin zen.

Eta hala bazan eta ez bazan sar dadila Zugarramurdiko plazan.

Ipuinak

Lehenengo taldea
Saria



Kepane Gonzalez

Urdintxo eta Pox

Urdintxo eta Pox

Udako egun eguzkitsu batean, Urdintxo eta Pox gorde-gordeka jolasten ari ziren Bergarako parkean.

Urdintxori Pox aurkitzea tokatzen zitzaion eta halako batean Pox bere gordelekutik irten zen:

–Urdintxo! Etorri! Etorri azkar! –oihukatu zuen Poxek.

Urdintxo Pox zegoen zuhaitzera hurbildu zen:

–Zer gertatzen da? –esan zuen Urdintxok.

–Begira zer dagoen lurrean! Zauritutako txori bat da! –esan zuen Poxek.

–Ene... ezin da mugitu ere egin! Albaitariarengana eraman beharko genuke –esan zuen Urdintxok.

Eta halaxe egin zuten. Jon albaitariak segituan sendatu zuen. Txoriak eskerrak eman zizkien Urdintxori, Poxi eta Joni.

Handik aurrera Bergarako herritar guztiek heroitzat izan zituzten Urdintxo eta Pox.

Hau hola bazan eta ez bazan, Urdintxo eta Pox heroi bihurtu ziren.

Ipuinak

*Bigarren taldea
Saria*



Nagore Pelicano

*Besteak bezalakoa izan
nahi zuen lore zatarra*

Besteak bezalakoa izan nahi zuen lore zatarra

Udako egun batean lore guztiak jaiota zeuden. Milaka zeuden. Bat oso diferentea zen. Oso luzea eta zaharra zen eta zimelduta zegoen. Besteak, motzak eta oso politak. Lore zatarrak Antonio izena zuen. Noizean behin, lore polit eta ez oso luzeak azokara eramaten zituzten, baina Antonio inoiz ere ez. Beti kexatzen zen eta zarata handiak ateratzen zituen. Azokara eramaten zituen andrea kokoteraino jarri zenean galdetu zion oso haserre Antoniori:

–Zer gertatzen zaizu? Beti kexatzen zaude?

–Inoiz ez nauzue azokara eramaten besteak bezalakoa ez naizelako –erantzun zion Antoniok.

Lore batek, Jon izena zuenak, hau esan zion lore zatarrari:

–Begira, ureztatzen gaituenari zera esan behar diozu: Ura!! Ura!! Ura mesedez!!

Hurrengo egunean, hori egin ondoren, Antonio ureztatua izan zen. Bat-batean piztu egin zen baina oso luzea zen...

Jonek ez zekien zer gehiago esan. Baina Nagore izeneko beste lore eder batek zera esan zion:

–Gure tamaina antzerakoa izateko beste hau egin behar duzu: belarra moztera etortzen bada gizon bat, “zu” mozteko eskatu. Bestela pentsatuko du horrelakoa izan nahi duzula eta zuk hori ez duzu nahi...

–Ez, noski ezetz. Bestela ez nizuen laguntza eskatuko –erantzun zion Antoniok.

Hurrengo egunean hau esan zion belarra mozten zuenari:

–Moztu nazakezu? Oso zatarra nago eta nik ez dut horrelakoa izan nahi –esan zion Antoniok lotsa handiz.

–Noski!!! Noski baietz!!! Baina zergatik ez didazu lehenago esan? –galdetu zion belarra mozten zuenak.

–Lotsa handia nuen eta ez nintzen ausartzen, baina nire lagunei esker jadanik ez dut lotsarik –erantzun zion Antoniok.

–Baina gogorra izan behar zara zeren min egiten du –esan zion loreak mozten zituenak.

–Bai, bai. Lasai. Ni oso gogorra naiz –erantzun zion Antoniok.

Tente-tente jarri zen eta zuumm!! moztu egin zuen.

–Aaaaaiiii... ze mina!! Baina orain besteak bezalakoa naiz eta azokara eramango naute. Ze ondo!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!


Ipuinak

Bigarren taldea
Saria



Ekain San Martin

Aratz Atlantidaren bila



Aratz Atlantidaren bila

1910. urteko otsailaren 7an Aratz izeneko arkeologoa bere laborategian lanean zebilen fosilak aztertzen, baina momentu batean atea jo zuten eta Aratzek orduan atea ireki eta gutun bat ikusi zuen. Gutunean hauxe ipintzen zuen: “Aratz jauna etor zaitez hamabietan Louvrera”.

Gutun hori irakurri ondoren erlojua begiratu zuen. Hamabiak laurden gutxi ziren, ondo zebilen denboraz.

Berehalaxe kotxea hartu eta Louvrerantz abiatu zen. Louvrera iritsi zenean hauxe esan zioten:

–Aratz jauna misio bat duzu, Atlantida aurkitzea!

Orduan Aratz lanean hasi zen baina ez zuen ezer aurkitu, papiro bat besterik ez. Papiro horretan jartzen zuen Louvren gela sekretu bat zegoela eta bertan Atlantidaren kokapena zegoela idatzita. Orduan bila hasi ziren aurkitu arte. Irakurri eta harantz abiatu ziren urpeko ontzian.

Bat-batean hiri zahar baten arrastoak aurkitu zituzten, eta hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Atlantidan.

Ipuinak

Bigarren taldea
Saria



Ekain Olaziregi

Sonbrila magikoa



Sonbrila magikoa

Egun batean, hondartzan, sonbrilak alokatzen zituzten eta denek bat hartu nahi zuten, sonbrila magikoa.

Behin sonbrilak hainbeste eguzki hartu zuen belzten hasi zela, lizuntzen, eta zakarretara bota zuten. Zakarrontzian lagunak egin zituen, eguzkitako krema bat eta ur botila bat. Orduan sonbrilak esan zuen:

–Ni lizundu eta bota egin ninduten!

–Ni kadukatu eta berdina gertatu zitzaidan –jarraitu zuen kremak.


–Eta ni ostiko batekin heldu nintzen honaino –esan zuen amaitzeko botilak.

Plan bat egin zuten, sonbrilak krema ematen zuen eta ez zen erretzen, botilak berriz ura ekartzen zien pertsoneri.

Harrezkero, hondartza horretako guztiak pozik bizi izan ziren.

Ipuinak

Hirugarren taldea
Saria



Amaia Alonso

Iluntasunaren eguna

Iluntasunaren eguna

Bazen behin Lorea izeneko eguzki bat. Oso pozik bizi zen eta gizon bat hartu zuen bere laguntzaile moduan. Bere gizona Rafael deitzen zen eta bera ere eguzki bat zen, argi gehien zuen eguzkia. Bera ere oso pozik bizi zen.

Ezkondu egin ziren eta seme bat eduki zuten: Eki. Urte asko pasatu zituzten elkarrekin eta oso ondo.

41 urte geroago Rafael gaixotu egin zen eta hil egin zen. Egun horretan Unibertso osoa argi gabe gelditu zen, nahiz eta beste eguzkiek argia izan.

Eki, Rafaelen eta Lorearen semea, oso kezkatuta gelditu zen eta galdetu zion bere ama Loreari:

–Ama, zer egin dezaket argia berriro ekartzeko Unibertsora?

Eta amak erantzun zion:

–Zure aitak 3 proba gainditu behar izan zituen hainbeste argi edukitzeko. Baina oso zailak ziren. Nahi dituzu zuk gainditu eta gure Unibertsoko EGUZKI JAUNA izan?

–Bai. Egia esan beldur pixka bat ematen dit baina, zu ere eguzkia zarenez, lagunduko didazu, ezta? –esan zion Ekik.

–Nola ez, ba –erantzun zion bere amak maitekiro–. Hemen daukazazu hiru probak: Lehenengoan 9 asteroide hil beharko dituzu, bigarrenean 2 kometa harrapatu beharko dituzu eta hirugarrenean Argiaren giltza bilatu beharko duzu.

Entzun eta berehala, abian jarri zen Eki gaztea.

–Eki, ez joan hain azkar Zulo Beltz batean harrapatuta geldituko zara eta –esan zion bere amak.

Baina hain azkar joan zenez Zulo Beltz batean harrapatuta gelditu zen.

Bere ama oso kezkatuta gelditu zen eta laguntza eskatzera joan zen.

Zulo Beltzean 9 asteroide zeuden eta 2 minutuan denak hil zituen.

–Lehenengo proba gainditu dut –esan zuen Ekik.

Gero, 2 kometa agertu ziren. 3 segundo geroago hirurak harrapatuta zituen.

–Bigarren proba gainditu dut –esan zuen Ekik.

Baina, azkenengoa falta zitzaion: Argiaren Giltza.

Hura aurkitzeko Zulo Beltzean zeuden labirintoak pasatu behar zituen. Eta igaro zituen. Labirintoaren bukaeran, kaxa bat zegoen. Kaxa horretan Argiaren Giltza zegoen.

–Hartu dut Argiaren Giltza, baina orain zer egingo dut?

Ekik bere izpiak laga zituen eta izpiekin labirintotik irten zen.

Ahalegin handia egin eta gero, bilatu zuen irtenbide bat Zulo Beltzetik irteteko.

Zulo Beltzetik irten eta bere amari besarkada handi bat eman eta gero, esan zion:

–Ama, gainditu ditut proba guztiak!!! Ikusten nauzu? Begiratu zenbat argi!!!

Eta amak esan zion:

–Oso ondo Eki!!! Orain gure Eguzki Jauna izango zara. Ez nuen inoiz pentsatu nire semea edo alaba Unibertsoko jauna edo anderea izango zenik. Benetan harritu nauzu, seme!!! Oso ongi!!!

Eki oso pozik zegoen Unibertsoko jauna eta argi gehien zuen eguzkia zelako, baina beste alde batetik oso triste zegoen bere aita hil egin zelako eta ez zuelako gehiago ikusiko.

Baina orduan Ekik esan zion bere buruari.

–Pozik egon beharko nintzateke, EGUZKI JAUNA naiz eta nire bizitzarekin jarraitu behar dut. Nire aitak pena handia ematen dit baina, zer egingo dut?

Eta bere amak esan zion:

–Seme zer gertatzen zaizu? Triste zaudela sentitzen dut.

–Lasai, ama. Pozik nago EGUZKI JAUNA naizelako baina aitatzko ez egoteak pena handia ematen dit eta...

–Eki, zure bizitzarekin jarraitu behar duzu, ezin zara bizi beti zure aitarengan pentsatzen... Animatu, gure Jauna zara, benga, animatu Jauna!!!

Eta handik aurrera nahiz eta bere aita hilda egon Unibertsoan ez zen inoiz argi faltarik izan.

Ipuinak

Hirugarren taldea
Saria



Oihane Altube

Sara Kanariar Uharteetan

Sara Kanariar Uharteetan

Sara, unibertsitateko ikasketak amaitu, eta argazki denda bat zabaldu nahian zebilen.

Argazki denda zabaldu zuenean argi zeukan ez zituela ezkontzetako, jaunartzetako... argazkiak egingo. Berari argazkiak zerbait esatea edo transmititzea gustatzen zitzaion eta horretarako bidaiak egitea erabaki zuen.

Egun batean, lehenengo nora joango zen pentsatzen ari zenean, berehala etorri zitzaizkion burura Kanariar Uharteak. Sararen aitona Kanarietakoa zen eta Sarak txikitatik nahi zuen bertara joatea. Pertsona ugari etortzen ziren Sararen dendara baina Sara aspertuta zegoen beti argazki berdinak ateratzen eta irrikan zegoen Kanarietara joateko eguna heltzeko.

Denbora asko igaro ondoren heldu zen Sararen bidaiaren eguna. Egun horretan goizean goiz esnatu zen irrikan zegoelako eta dena segituan egin zuen: duxatu, jantzi eta gosald; maleta aurreko egunetik eginda utzi zuen.

Aireportura iritsitakoan Kanarietara zihoan hegazkina hartu zuen.

Hegazkinean oso urduri zegoen baina paisaia ikusitakoan lasaitu egin zen.

Kanarietara iristear zeuden eta gidariak lur hartu behar zutelako aulkietan mantentzeko eskatu zien.

Lur hartutakoan Sara segituan jaitsi zen hegazkinetik eta harrituta gelditu zen paisaia nolako tropikala zen ikustean.

Sara hotelera joan eta erregistratu ondoren bere logelara joan zen. Bertan

segituan maleta desegin zuen, kamera hartu eta kanpoko esploratzera joan zen.

Kanarietako umeei, landareei, gurasoei, helduei eta turistei atera zizkien argazkiak.

Oso ondo pasa zuen eguna umeekin jolasten eta hizketan, eta helduekin eta gurasoekin egoten...

Oso ondo ibili zen eta gauean turista batzuekin afaldu zuen.

Hurrengo egunetan ere argazkiak egiten ibili zen nahiz eta lehenengoan asko ez egin. Ez zen aspertzen argazkiak egiteaz. Hondartzara edo igerilekura joaten zenean ere argazkiak egiten zituen. Sararendako argazkiak bere bizia bezain garrantzitsuak ziren eta txiki-txikitatik gustatzen zitzaion argazkiak egitea. Berak bazekin aste bat egon behar zela bertan, baina berdin-berdin argazkiak egiten zituen.

Goizean jaiki zenean lasai-lasai dutxatzera joan zen eta gero jantzi eta go-saltzera jaitsi zen.

Baina arratsaldean beti bezala argazkiak egitera irten zenean ume, guraso, heldu eta pertsona guztiak nahiko urduri zeudela ikusi zuen. Berak ez zituen aurpegi urduriak atera nahi eta orduan norbaiti zer gertatzen zen galdetzea bururatu zitzaion.

Turista bat ikusi zuenean galdetu eta hauxe esan zion.

–Jendeak Teide sumendiak erupzioa izan behar duela esaten du, lurrikara txikiak egon direlako.

Orduan Sara berriro hotelera itzuli zen eta barruan gelditzea erabaki zuen.

Baina bat-batean zarata handi bat entzun zuen eta leihora hurbildu zen.

Jende guztia alde batetik bestera zebilen eta irten egin behar zela onartu zuen Sarak.

Teide sumendirantz joan zen baina poliziak dena inguraturik eta itxita zuenez, ezin izan zen Teide sumendira hurbildu ere egin.

Sara, dena kontrolpean zutela ikusitakoan, lasaitu egin zen baina susto ederra hartu zuela onartu zuten berak eta herri osoak.

Orduan kamera hartu eta argazkiak atera zituen. Ez zituen atera argazkiak bere bizitzan lehen aldiz erupzioa izan zuen sumendia ikusteagatik bakarrik, baita bertako herria, bai umeak, bai gurasoak eta bai helduak nolako ausartak ziren gogoratzeko ere.

Bueltatzeko ordua iritsi zitzaionean, pena handia hartu zuen baina inoiz ez zuen ahaztuko han bizitakoa eta argi zeukan beti jarraituko zuela bidaia-tzen. Donostiara iritsitakoan dendara joan eta lehenik eta behin ateratako argazkiak paperera pasatzen hasi zen paretan ipintzeko.

Ipuinak

Hirugarren taldea
Saria



Unai Sampietro

Etorkizuneko problema

Etorkizuneko problema

Orain dela urte batzuk, Einstein-Txiki belgikar asmatzaile zoroak denboraren makina asmatu zuen, eta etorkizunera bidaiatzea bururatu zitzaion. Bruselan bizi zen eta gau batean lapurtu egin zuen hiriko eskultura maiteena, Manneken Pis, eta berarekin batera sartu zuen denboraren makinan.

Etorkizunera heltzean Einstein-Txikiak “Mago Pesao”k emandako edabea, pixaren edabea, eman zion Maneken Pisi txiza asko egiteko. Baina edabe horrek bazituen bigarren mailako beste efektu batzuk: eskulturak bizia hartu zuen eta tamaina erraldoiko pertsona maltzur bihurtu zen.

Manneken Pis txiza egin eta egin zebilen. Hasieran, hori ez zen arazoa, baina asteak pasa ahala, gauzak nahastu ziren. Hainbeste zen egiten zuen pixa, azkenean, etorkizuneko herria urperatu (edo txizaperatu) egin zela.

Arazoa konpontzeko, NASA agentziakoek “Aerour” izeneko proiektua jarri zuten martxan. Egitasmo honen helburua zen txiza guztia espaziora bidaltzea, bereziki egokitutako espazio-ontzi zisterna batzuetan. Baina, hala eta guztiz ere, ez zuten arazoa konpontzerik lortu, Manneken Pisen pixagura ikaragarria zelako.

Baina beti izaten dira pertsonaren batzuk “benetan azkarrak”... eskrupulurik gabeko pertsonak! Guztiari etekina atera nahi izaten diotenak! Horrelakoa zen Nereàl izeneko kosmetika etxeko zuzendaria. Txiza guztia batu zuen eta pote dotoreetan sartuta, aurpegia gaztetzeko toniko miragarri bezala saldu

zuen. Oso ona zen eta asko saltzen zuen, baina jendea konturatu zenean txiza zela ez zuen gehiago erosi.

Orduan, uda berotsua heldu zen, eta txizaren tenperatura ehun gradura hel-tzean, lurrundu egin zen txiza guztia, eta laino hori batzuk sortu ziren zeruan. Denak zeuden oso pozik arazoa berez konpondu zelako. Baina udazkenaren etorrerarekin batera euria ere hasi zen eta ez zen izan ura zerutik erortzen zena.

Gauzak horrela beste enpresa bateko gizon azkar batek hortik etekina atera nahi izan zuen. Txiza guztia batu eta botilatan sartu zuen “Planta Na-ranja” bezala saltzeko. Zapore ona emateko E-356, E-587, E-989, E-732, E-123 eta E-465 bota zizkion, eta etiketan “natural-naturala” zela jarri zuen. Oso na-turala izan ez arren, zapore ona zuen eta jendeak oso gustura edaten zuen.

“Planta Naranja”koak oso pozik zeuden, baina egun baten, Manneken Pis deshidratazioz hil zen eta beraien negozioa amaitu egin zen. Lurrean egindako zulo handi baten lurperatu zuten. Einstein-Txiki oso triste egon zen, eta ez zuen nahi izan berriz ere bere garaira itzultzerik. Penaz hil zen bi urtera, eta Man-neken Pisen ondoan lurperatu zuten hau ere.

Urte batzuk barru Bruselara joaten bazarete, agian Manneken Pis ez da bere lekuan egongo eta orain badakizue zergatik.

Ipuinak

Laugarren taldea
1. Saria



Miren Txurruka

Akabo hiru lagunen arteko
adiskidetasuna

Akabo hiru lagunen arteko adiskidetasuna

Udako gau hartan Naiara, Maddi eta Lorea Benidorm-eko hondartzan eserita zeuden; hilabete bat zuten paradisu hartaz gozatzeko. Naiarak heme-retzi urte bete berriak zituen, eta beste biek laster beteko zituzten. Lehenengo aldiz oporrak batera igarotzea erabaki zuten; eta non Benidorm bezalako hiri batean baino hobeto?

Egun osoa hondartzan pasatzen zuten eguzkia hartzen, paseatzen, uretan... Gauean, berriz, inguruko diskoteketara joaten ziren zertxobait edan eta ondo pasatzeko. Hasieratik lagun ugari egin zituzten, bai neska eta bai mutil.

Maddi zen hiruretatik ausartena; eta berehala hasi zen inguruko mutilekin ligatzen. Loreak ere aurkitu zuen mutil laguna, Maddirenak ez bezala honek gau bat baino gehiago iraun zion. Naiarak, berriz, ez zuen mutil-laguna topatzeko asmorik, berezia izaten ez bazen behintzat.

Txikitatik lagunak ziren, elkarrengandik oso desberdinak izan arren. Haien amak haurdun zeudenean ezagutu eta lagun minak egin ziren; eta alabak jaio-tzetik batera hasi ziren. Amen harremana poliki-poliki hozten joan zen baina neskek aurrera jarraitu zuten haien adiskidetasunarekin. Eta hor zeuden hirurak oporretan; gurasoak kostata konbentzitu ondoren.

Aste bat igarotakoan pixka bat lasaiago ibiltzea erabaki zuten. Loreak egun asko pasatzen zituen Igorrekin; bertan ezagututako bilbotar gaztea zen. Baina beti topatzen zuen Naiara eta Maddirekin egoteko tartetxo bat; baita egun

osoak ere. Azken batean disfrutatzeko etorriak ziren arren, lagunak izaten jarraitzen zuten eta hori zen garrantzitsuena.

Baina hirugarren astean Lorearen ama gaixotu egin zen eta ospitalean ingresatu behar izan zuten. Loreak ahalegin guztiak egin zituen Euskal Herrira itzultzeko baina bere aitak eta lagunak bertan geratzea hobe izango zela sinistarazi zioten. Egun haietan Igor neskekin batera ibili zen bere neskalaguna animatu nahian.

Naiara konturatu zen Maddik denbora gehiegi pasatzen zuela Igorri begira eta nola edo hala harengana hurbiltzen zela. Bere buruan bi horien artean gerta zitekeena pentsatzen hasi zen baina berehala baztertu zuen burutapen aldrebes hura. Egia esan, Naiara izaten zen normalean Lorearen eta Maddiren arteko haserreak konpondu behar izaten zituen; nahiz eta lagun onak izan, biak oso berekoiak baitziren. Baina Naiara ez zebilen oker...

Gau batean “Venecia” izeneko diskotekara joan ziren hainbat lagunekin eta momentu batean hirurak banandu egin ziren, bakoitza pertsona desberdinekin elkartu zelako. Kasualitatez, Naiarak diskotekako txoko batera begiratu zuen eta Igor neska batekin ikusi zuen. Neska hura ez zen Lorea, Maddi baizik.

Zur eta lur gelditu zen; ezin baitzuen sinetsi gertatzen ari zena. Maddi Lorearen mutil-lagunarekin musukatzen ari zen, eta Loreak edozein momentutan harrapa zitzakeen. Naiarak ez zekien zer egin eta gau hura amets gaizto bat izatea erregutu zion Jainkoari ohera sartu aurretik.

Gau osoa buruari bueltak ematen pasa ondoren goizeko zazpiak aldera lo egitea lortu zuen. Gaitzerdi Loreak gertakizuna ikusi ez izana. Naiarak Maddirekin hitz egin zuen hirugarren neska dutxatzen ari zen bitartean, baita Igorrekin ere. Neskaren zorigaitzerako, Maddik eta Igorrek batera jarraitzeko asmoa zuten; hortaz, momentu apropos batean Loreari gertatutakoa kontatuko zioten.

Iluntze hartan bertan Lorea gertatutakoaz jabetu zen, eta ez zuen oso umore onez hartu. Gizajoa nahiko gaizki pasatzen ari zen bere amagatik, eta berri honek erabat lur jota utzi zuen. Gainera, bi maitaleek ez zuten Loreari ezer

esateko denborarik izan, musukatzen ari ziren bitartean honek harrapatu baitzuten. Akabo hiru lagunen arteko adiskidetasuna.

Hurrengo egunak lagunen bizitzako egunik txarrenak izan ziren. Maddi egindakoaz damutu zen baina behin eta berriz Loreari barkamena eskatu arren, ez zuen ezer lortu. Loreari bere buruaz beste egiteko gogoaz sartzen zitzaien gauetan eta ez zuen inoiz barkatzeko asmorik. Eta Naiarak ez zekien zer egin; lagun damutuarekin egon edo goibelduarekin.

Naiararentzat ez zen batere erraza norekin egon aukeratzea. Maddirekin hitz egin zuenean oso damututa zegoela konturatu zen eta Lorea konbentzitzen saiatu zen; baina alferrik. Neska amorruez eta tristuraz beteta zegoen. Naiarak espero zuen gauza bakarra egunen batean arazoa konpontzea zen.

Baina ez zen horrela gertatu. Handik astebetera etxera itzuli ziren eta hirukotea banandu egin zen. Maddi eta Lorea ez ziren inoiz gehiago lagunak izango eta Naiarak ezin zuen bietako bat baztertuta utzi, bestearekin harremanetan jarraituz. Hurrengo urtean bakoitzak bere aldetik jarraitu zuen eta, karrera desberdinak egiten ari zirenez, ez zuten elkar ikusten.

Noizean behin, kasualitatez, diskotekaren batean elkartzen ziren bakoitza bere lagun berriekin; baina beti momentu deserosoak saihesten zituzten. Poliki-poliki herri desberdinetara bizitzera joan ziren eta bizitzak aurrera egin zuen; hirurek familia osatu zuten. Askotan euren buruari besteak non egongo ote ziren galdetu arren, talde hura ahaztuta geratu zen.

Uda batean ordea, hiruren alaba nagusiak Zuhatzara joan ziren. Oso lagun onak egin ziren eta udaren ondoren harremanetan jarraitzea erabaki zuten: elkar bisitatuko zutela hitz eman zuten. Zapatu arratsalde batean, hirurak Gasteizen geratu ziren eta haien gurasoek zentro komertzialeraino eramane zituzten. Ordu zehatz batean sarreran geratu ziren.

Neskak elkar besarkatu zuten, baina harrituta geratu ziren amen erreazioarekin. Hiru amek elkar ikustean, bi aldiz pentsatu gabe, elkar besarkatu zuten eta negarrari eman zioten. Nerabezeroan egindako tontakeria batengatik, lagun minak izatetik kontaktua galtzera pasatu ziren eta erabat damututa zeuden hirurak.

Loreak erabakiko zuen berriz lagunak izango ziren ala ez; bera baitzen Maddiri barkatu behar ziona. Bi aldiz pentsatu gabe, barkatuta zegoela esan zion eta hirurak berriz ere besarkatu ziren. Orain, amak eta alabak hilabetean behin elkartzen dira eta plan desberdinak pentsatzen dituzte arratsalde edo egun gogoangarriak bizitzeko.

Ipuinak

Laugarren taldea
2. Saria



Mikel Miner

Lehoi baten bihotza

Lehoi baten bihotza

“Oihaneko erregea naiz, basatiena, gainontzeko animaliek beldurra didate, indartsuena bainaiz, lehoia naiz”. Hau da benetako lehoi batek esango zuena, baina, hori ez da nire kasua. Ni ez naiz basatia, ez dut inor beldurtzen eta ez naiz indartsua, alderantziz, mantsoa eta ahula naiz. Txakur bat naiz, kanitxe bat, eta nire izena Azti da.

Nahiz eta itxuraren inguruan ezer aipagarririk esateko ez egon, nire barnean, abenturazale baten bihotza dut. Gauza bat da nik neure burua nola ikusten dudan eta nola sentitzen naizen, eta beste bat, oso ezberdina, besteek nola ikusten nauten. Nire lagunek pijo bat naizela uste dute eta mimatu xamarra naizela esaten didate. Nire jabeak edertasun lehiaketetara eramateko duen ohi-turarengatik gertatzen da hau. Beraz, nire itxura oso landuta dago. Nire ile kizkurra (hain da luzea eta ugaria, nire buruaren tamaina laukoizten duela) sorbalda erdiraino luzatzen da. Eta gorputzeko beste atal guztiak, buztan punta eta hanken behealdea izan ezik, depilatuak ditut.

Nire istorioa udako goiz batean hasi zen. Txoriek kantu eder bat abesten zutelarik, eguzkia esnatzen ari zen. Parkean, zaunkaka adierazten nuen nire alaitasuna, beste txakur batzuekin saltoka eta korrika jolasten nuen bitartean. Baina nire ahotsa geroz eta sendagoa zen. Ura su bilakatuko balitz sentitzen nintzen, harea harkaitz, biguna gogortu egiten zen nire barnean. Parkeko beste txakur guztiak korrika atera ziren, ikaraturik. Nik zaunka egiten jarraitzen nuen, beraietara deitzeko eta nirekin itzultzeko, baina denak ihesi joan ziren.

Gaua heldu zenean, egunero bezala, nire jabeak bainu bat eman zidan ondo garbituz. Nire xanpu berezia amaitu zenez, ez zitzaion ezer hoberik bururatuz ontziak garbitzeko xaboia erabiltzea baino. Sikatu ondoren, ilea mardul eta itsusia geratu zitzaidan, inauterietako peluka bat neramala ematen zuen. Bere hankasartzeaz konturatzean, buztaneko eta hanketako ilea sikatu gabe utzi zidan, horrela disimulatuagoa baitzegoen. Nire jabea oso lotsatuta zegoen neraman ilearengatik baina nik gaueko paseoa nirekin egitera behartu nuen. Inoiz baino hobeto sentitzen nintzen, ez dakit, zerbait berezia zegoen nire itxuran.

Gauero bezala, nire jabeak linterna haginaren artean ipini zidan eta ibiltzen hasi ginen leku ilun guztiak arazorik gabe argituz. Zuhaitz eta bazter guztietan nire lurraldea markatuz nindoan nire sena basatia jarraituz eta, ohartu gabe, jendea baino metro batzuk atzerago gelditu nintzen. Bat-batean, beltzez jantzitako bi gizon beldurgarri gerturatu zitzaizkidan. Burua estalita zeramaten. Ikaratuta nengoen, oso ikaratuta, baina hala eta guztiz ere, linterna ahotik askatu nuen eta hiru pauso ausart eman nituen nire itzala aurreko paretan igortzeko. Momentu horretan, nire indar guztiekin egin nuen zaunka. Gizonek berehala altxatu zuten begirada eta beraien muturren aurrean nire itzal handia ikustean, hots hori eta nire itzala lehoi batenarekin nahastu zituzten. Guztiz izututa eta dardarka, beraien pistolak lurrera bota eta korrika joan ziren. Beraien ausardia beldur bilakatu zen eta, alderantziz, nire beldurra ausardia. Egoeraz jabetzean, indarrez zaunkaka jarraitu nuen eta lehoi bat bezain basati sentitu nintzen.

Hurrengo egunean mundu guztiak hitz egiten zuen gertatutakoaz. Lapurrek, euren artean, auzoan lehoi bat aske zegoela zabaldu zuten eta gaur arte, auzoan ez da berriz lapurrik ikusi. Sari bezala, nire jabeak, foku handi eta potente bat pizten du gauero terrazan. Ni aurrean jartzen naiz nire itzala auzo osoan zehar nabarmentzeko, eta segidan, hiru zaunka sendo eta ozen egiten ditut. Honela, egunak joan eta egunak etorri, nire mitoa handitzen da. Aztiren mitoa, auzoko erregearena.

Ipuinak

Laugarren taldea
3. Saria



Miren Carricero

Nire eguneroko maitea

Nire eguneroko maitea

Oso urduri nago arratsaldeko zortzietan jabe berria ni hartzera etorri behar delako. Orain dela bi hilabete sortu ninduten, mundu honetan berria naiz. A! Ahaztu bazait esatea, ni eguneroko bat naiz. Misteriozko liburu zahar horietako bat ematen dut, sarraila bat dudala marraztua.

Nire ametsa idatzia izatea da, baina ez pertsona aspergarri batek, ez, poliziarengandik ihesi dabilen norbaitek, edota banaka poliki-poliki bere etsaiez arduratzen den hiltzaile batek edo... Buff! Hain naiz pelikula poliziako horien zalea, non polizia bat izatea gustatuko zitzaidan, misteriozko kasuez arduratzten den horietakoa.

Momentu honetan zortziak hamar gutxi dira. Ni, liburu dendako enkar-guen mahaian, beste hainbat libururekin batera nago kokatuta; baina ez pentsa ni beste liburuen antzekoa naizela, ni liburu espeziala naiz, neure burua-ren jabe izan naitekeelako. Hau da, nahi dudana idatzi ahal dezaket nire orrietan, baina inork ezin dezake jakin ni naizela idazten ari dena. Oso urduri jartzen hasia naiz, erlojuaren orratzen TIK-TAKak dendaz jabetu den isiltasuna apurtzen du.

Zortziak izateko minutu bat falta eta norbait sartzen da dendan. Gabardina beltz bat eta guardasola eskuan daramatzala, dendariarengana gerturatzen da; hori izango al da nire jabe berria? Bai, ez dago susmorik pertsona beldurgarri horrek nire jabe berria izan behar duela. Bere gabardinatik enkargu orria atera eta dendariari ematen dio. Dendaria niregana gerturatu eta hartu egiten nau.

Dendariak ni hartzen ninduen bitartean gizon misteriotsua poltsikotik zerbait ateratzen ari zela konturatu naiz. Gauza hura pistola bat zen!

–Igo eskuak eta ez egin garrasirik mesedez. Joan kaxan duzun diru guztia poltsa batean sartzen, agudo! –esaten du derrepentean gizonak urduri baino urduriago.

–Hau da dudan guztia jauna –erantzuten dio dendariak poltsa erakustear batera.

–Berdin du. A! Eta nik enkargatutako egunerokoa ere sartu.

Dendariak poltsan sartzen nau diruarekin batera eta gizonari, hobeto esanda “lapurrari” ematen dio. Azkenik nire ametsa beteko da! Lapur batek idatziko nau!

Poltsan sartu ninduenetik denbora luzea pasa da eta, seguruenik, liburu-dendatik asko urrundu gara; hala ere, ni ez naiz poltsatik kanpo pasa den ezer-taz enteratu. Bat-batean gelditu egin gara eta poltsatik zakar atera eta sukal-deko mahai gainean jarri nau. Dirua, berriz, kontu handiz atera eta segituan koadro baten atzean ezkututzen zuen kaxa gogor batean gorde du.

Berak jakin ez arren, ni behatzen nenbilen. Oso azkarra dela pentsatzen du, baina ez, oker dabil, ni are gehiago naiz! Horrexegatik ba ez dut eskuetatik alde egiten utziko. Nire ametsa hori da eta! Polizia izatea!

Hurrengo orduetan ez da ezer interesgarririk pasa telebista piztu duen arte. Telebistan, bada, bere gaurko lapurretaren berri eman dute, baita azken urte-otan egin dituen lapurreta guztien berri ere, eta nola poliziak oraindik bere atzetik jarraitzen duen. Orduan bai are interesgarriagoa egingo da lapur hau salatzea, baina plan zailago bat landu beharko dut.

Geroago, afaldu ostean, niregana hurbildu eta nigan idazten hasi da:

“Eguneroko maitea, gaurko lapurreta inoiz egin dudan errazenetariko bat izan da. Ez dut oztoporik izan eta liburu-denda bat izateko... asko lortu dut”. Hau bai tontolapikoa! Diru asko irabazi duela esatea ere... eta gainera ez duela oztoporik izango! Gorriak ikusiko ditu honek! Ez da inoiz gehiago liburu bat eroatera ausartuko! Bere egunik txarrenak pasatuko ditu nire alboan. Berak bitartean jarraitzen zuen:

“Bihar arratsaldean emango dut nire azken lapurreta, azkena baina balio-tsuen”

Hura izan zen bere azken gaua espetxeko barroteetatik kanpo. Dena, niri esker!

Ez dut harroa izan nahi... baina, beno, nola egin nuen komentatuko dizuet:

Lapurretaren eguna zen hura, lapurra goiz esnatu zen prestaketak egiteko eta nire orrietan plana idazteko (non egongo zen, zer egingo zuen, diruaren gordelekua...). Bukatutakoan gosaltzera zihoala, poliziaren sirena-hotsa entzun zen. Behar-beharrezkoa hartu (dirua eta ni, esate baterako) eta alde egin zuen. Korrika eta presaka irten zen eta ez zen ohartu nire orri batzuk solte gelditu zirela; eta zeintzuk? Bada, bere plana kontatzen zutenak. Baina ez uste orriak nahigabe erori zirela, ez, hura nire ideia paregabea izan zen. Ondoren, poliziak ez zuen bera harrapatzeko zailtasunik izan, lapurra orriak esaten zuen lekuan aurkitu zutelako.

Badakit ezin naizela poliziaren parte izan, baina nire ametsa bete dut, poliziari kasu bat argitzen lagundu diot. Eta hori da garrantzitsuena, bakoitza bere nahiak betetzen saiatzea.

Ipuinak

Laugarren taldea
3. Saria



Xabier Iparragirre

Unibertsoaren beste aldean

Unibertsoaren beste aldean

Bazen behin Iker izeneko mutikoa unibertsoaren beste aldera joan nahi zuena. Bere bizitza beste denena bezalakoa zen. Eskolara joan, ikasi eta bazkaldu. Arratsaldean ere, gauza bera egiten zuen. Eskola bukatuta gero, lagunekin futboleant jokatzen zuen.

Egun batean Ikerrek amari esan zion, unibertsoaren beste aldera joan nahi zuela.

–Ama, egun baten unibertsoaren beste aldera joan nahi dut.

–Baina Iker, zela joango zara?

–Ez dakit, baina joan nahi dut.

Aitak ere esan zion ezin zela joan unibertsoaren beste aldera, ez zegoelako tramankulurik joateko.

Hurrengo goizean, Ikerrek bere lagun Mikeli galdetu zion, ea berarekin joan nahi zuen unibertsoaren beste aldera eta Mikelek bere amaren galdera bera egin zion.

–Baina Iker, nola?

Ikerrek barrutik pentsatu zuen “Ez dakit baina egunen batean joango naiz, ziur”. 10 minutu beranduago Iker etxean zegoen, periodikoa hartu eta hauxe ikusi zuen: “Telefono honetara azkarren deitzen duenak unibertsoaren beste alderako sarrera bat izango du”. Orduan Ikerrek telefonoa hartu eta periodikoan azaltzen zen numerora deitu zuen.

–Bai, nor da? –erantzun zuen batek

–Iker naiz eta sarrera bat nahi dut unibertsoaren beste aldera joateko.

–Berandu zabiltza, oraintxe bertan deitu du beste batek. Agur.

Ikerrek amorraturik telefonoa eseki zuen eta lotara joan zen, triste-triste gurasoei ezertxo ere esan gabe.

Hurrengo egunean, lehenengo orduan jaiki zen eta periodikoaren bila joan zen jakiteko nork irabazi zuen sarrera unibertsoaren beste aldera joateko. Irabazleak Francchutn izena zuen. Etxera ekarri zuen periodikoa, gosalduta eta eskolara joan zen.

Eskolan Mikelek Ikerri esan zion Francchutn-ek bere sarrera saldu behar zuela eta Iker tximista baino azkarrago etxera joan zen. Telefonoa hartu eta segituan deitu zuen aurreko eguneko telefonora,

–Bai, zein zara? –esan zuen telefonoa hartu zuen pertsonak.

–Iker naiz eta sarrera bat nahi dut unibertsoaren beste aldera joateko.

–Lortu duzu!! Zorionak!!! Biharko hortxe izango duzu sarrera eta etzi joango zara unibertsoaren beste aldera.

–Toma, iiiuuuuuuppppppiiiiiiii!!!!!!!!!!!!!! –esan zuen Ikerrek.

Iritsi zen eguna. Bere ametsa betetzeko ordua zen hura. Ikerren etxe aurrean zegoen tramankulu bat unibertsoaren beste aldera bidaliko zuena 2 ordu baino gutxiagoan eta berak nahi zuenean etorriko zen, botoi bat zapaldu eta listo!!!

Iritsi zen momentua, tramankuluan jarri zen eta aireratzeko momentua 2 minutura izango zela esan zion batek. Lehenengo sua piztu zuten eta ffffffffhhhhhhhhh!! abiatu zen unibertsoaren beste alderantz. Ikerrek izugarrizko beldurra zuen, baina momentu berean poztasuna, unibertsoaren beste aldera joan behar zuelako, munduan ez zegoelako inortxo ere egonda.

Lurreratu zen leku arraro baten eta tramankulutik irten zen. Bere aurrean izugarrizko paisaia polita ikusi zuen. Aurrera jarraitu zuen eta etxetxo bat ikusi zuen. Ez zekien sartu, edo ondotik pasatu. Azkenean sartzea erabaki zuen eta inortxo ere ez zegoen.

Kantsatuta zegoelako, aulki batean eseri eta lo hartu zuen.

Esnatu zenean, sukaldean norbait zegoela konturatu zen, eta sukalderantz joatea erabaki zuen. Sukaldean pertsona bat zegoen eta salda ari zen egiten. Pertsonak bere burua aurkeztu zuen eta bere izena Shirkei zen.

–Kaixo, nire izena Shirkei da –esan zuen mutilak.

–Nirea Iker da.

–Nola etorri zara? Nondik?

–Lurretik nator eta tramankulu batekin etorri naiz. Zergatik zara hain txikia?

–Horrelakoa jaio nintzen –esan zuen ipotxak. Nahi duzu salda berorik?

–Bale –erantzun zuen Ikerrek.

Geroxeago, biak salda edaten zebiltzan eta Shirkeiek esan zion:

–Mundu honetan dragoiak eta adarbakarrak daude.

–Bai, zera! –erantzun zuen Ikerrek.

–Bakoitzak bere dragoia izaten du, baina zuk harrapatu beharko duzu eta oso zaila da, gainera bizia arriskatzen duzu. Adarbakarrak naturaren magia dira eta behin ikusten baduzu, magia ikasten duzu.

–Nik nahi dut magia ikasi eta dragoi bat eduki –esan zuen Ikerrek.

–Nik badaukat dragoi bat. Nahi duzu ikusi?

–Bai!! Bai!! Bai!!

–Goazen.

Shirkeik bere dragoi berde eta gorria erakutsi zion.

–Ze polita –esan zuen Ikerrek.

–Bai, orain dela 9 urte nireganatu nuen; magia ere badakit –eta eskuetan zuen botila desagerrarazi zuen.

–Nola egin duzu?

–Esan dizut ba, magiarekin.

–Nik ere ikasi nahi dut.

–Bada orduan adarbakar bat ikusi beharko duzu –esan zion Shirkeiek.

–Ba al dakizu non egoten diren?

–Bai, baina oso-oso urrun dagoen baso baten. 6-7 egun behar dira eta basoaren izena Unikertu da, baina nahi baduzu bihar joango gara.

Hurrengo egunean abiatu ziren Iker eta Shirkei Unikertu basora. Iker poz-pozik zegoen, adarbakar bat ikusten bazuen, magia ikasiko zuelako.

Hirugarren egunean, errepide batetik zihoazela, orro bat entzun zuten: au-gaggghhh!

–Zer izan da hori? –galdetu zuen Ikerrek.

–Dragoi baten orroa izan dela uste dut.

–Aaaaaaiiiiiiii! Zelako beldurra!

–Oraintxe duzu momentu egokia zure dragoia zureganatzeko –esan zuen Shirkeiek.

–Bai, baina dragoitik erortzen banaiz, zer?

–Nik babestuko zaitut.

–Bale.

Iker hasi zen eskalatzen eta dragoiaren parera iritsi zenean, bere dragoia zein izango zen pentsatzen gelditu zen. Bere dragoia erabaki zuen. Dragoiaren gainera egin zuen salto, baina dragoia konturatu zen bere gainean zegoela eta buelta eman zuen. Orduan Ikerrek oreka galdu eta jausi egin zen. Shirkei adi zegoen eta bere magiarekin Iker berriro ere dragoi gainera igotzea lortu zuen. Ikerrek, bazekien golpe bat emanda lepoan, lurrera eroriko zela eta hori egin zuen. Golpea eman zionean, lurrera jausi zen dragoia eta Shirkeiek bazekien nola bereganatu. Sorginkeria bat egin zuen eta dragoia Ikerrek, Shirkein laguntzaz, bereganatu zuen.

–Mila esker Shirkei –esan zuen Ikerrek.

–Ez horregatik.

Geroago Ikerren dragoian zihoazen biak eta gaua iritsi zen. Baso batean geratu ziren eta Iker beldurtuta zegoen. Shirkeiek esan zion baso horretan gaiz-

toak zeudela. Esan zion, laster gerra bat ere egongo zela eta biek parte hartu beharko zutela. Orduan Ikerrek esan zion, adarbakar bat ikusten bazuen magia ikasiko zuela baina ezingo zuela sorginkeriarik egin, ez zuelako jakingo magia erabiltzen.

Hurrengo goizean, goiz-goiz jaiki ziren eta Ikerren dragoian joan ziren.

Shirkeik esan zion, su gehiago botatzen zuela, baina mugimendu txarra-goak egiten zituela.

–Bueno, su gehiago botatzen badu, hobe.

–Bai, baina errazago joko zaituzte. Nire dragoia ere arra da eta nik ere nahiago dut su gehiago botatzea eta mugimendu eskasak egitea.

–Bueno ba, ikusi-makusika ibiliko gara.

–Bale –esan zuen Ikerrek.

–Ikusten dut... D-rekin hasi eta A-rekin bukatu.

–Ez da izango dragoia, ez???

–Bai, asmatu duzu, hortxe aurrean dago. Ezingo gara borrokatu barik pasatu.

–Ez gara borrokatuko, beldurra dut –esan zuen Ikerrek.

–Zenbat urte dituzu??? –galdetu zuen Shirkeik.

–9 urte, zergatik???

–Honezkero ausarta izan beharko zenuke. Nik orain dela 26 urte gerran parte hartu nuen, eta orain 36 ditut.

–10 urterekin???!!!

–Bai, asko sufritu nuen. Galdu egin nuen gerra, baina laster egin behar den gerran, seguru nago, irabazi egingo dugula.

–Ni zure ondoan egongo naiz azken momentura arte.

–Mila esker, baina igual huts egingo dizut –esan zuen Shirkeik.

Gaua iritsi zen eta Iker eta Shirkei lotara joan ziren.

Bi egun geroago Shirkeik esan zion Ikerri 6 ordu bakarrik falta zirela Unikertu basora iristeko.

Koldo Eleizalde Lehiaketak 2013

–Iker laster iritsiko gara –esan zion Shirkeiek.

–Iujjjjjjjjuuu!!!!!!

–Baina, ez abestu garaipena, adarbakar bat ikustea oso-oso zaila da.

Iker eta Shirkei lotara zihoazenean pertsona bat iritsi zen.

–Hartu –esan zuen pertsonak.

–Zer da??? –galdetu zuen Shirkeiek.

–Gutun bat.

Shirkeik gutuna zabaldu zuen eta firma Kristena zen, eta barrutik hau esan zuen. “Ai gure jefea, zenbat denbora ikusi barik”.

–Shirkei, zer esan dizu?

–Gerra 6 egun barru izango dela esan dit Kristek.

–Bale.

–Agur.

–Zein zen hori???

–Gure armadako gutunak banatzen dituen.

–Bai, eta gerrarako ez badut magia ikasten, zer???

–Lasai, 6 egun falta dira, bihartik aurrera jo eta ke ibiliko gara adarbakar bat ikusi arte.

Hurrengo goizean jaiki ziren adarbakar bat ikusteko. Lehenengo Shirkeik ikusi zuen lekura joan ziren eta han, ez zegoen adarbakarrik.

–Hemen ez dago adarbakarrik –esan zuen Shirkeik.

–Goazen beste leku batera.

–Bai, igual beste leku batean egongo dira.

Geroxeago, biak zihoazen beste leku batera adarbakarrak bilatzera. 3 ordu geroago iritsi ziren Paskulan mendira. Ikerrek puntu zuri batzuk ikusi zituen urrunera eta bere barruan zer bait sentitu zuen. Bere zainak eta arte-riak magiaz betetzen zirela.

–Magia –esan zuen Ikerrek bat-batean.

–Seguru zaude???

–Bai. Puntu zuri haiek adarbakarrak dira, ez banago oso oker –esan zuen Ikerrek.

–Bale, orduan listo; magia dakizu eta dragoi bat duzu.

–Iuuuuuuujjjjjjjjjjuuuuuuuu!!!!!! –esan zuen Ikerrek.

–Bale, gauzarik errazena eginda.

–Errazena???

–Bai, orain magia erabiltzen ikasi behar duzu eta dragoiaren mugimendu batzuk erakutsi behar dizkizut 6 egunetan –esan zuen Shirkeiek.

–Goazen, ez dugu denbora alperrik galdu behar –esan zuen Ikerrek.

–Bai.

Momentu batzuk geroago, Shirkei magia erakusten zebilen Ikerri. Lehenengo sorginkeria erakutsi behar ziona, eskudu protektore bat egitea zen. Bigarrena, tximista bat egitea eta bere kontrarioari bidaltzea zen. Hirugarrena, sendatzeko gaitasuna erakutsi behar zion. Azkena oso-oso gutxitan erabili behar zuen. Gauza hori 10eko terremotoa eragitea zen.

–Ezin dut eskudo protektorea egin –esan zuen Ikerrek.

–Saiatu egin behar zara. Zure magia, zure inguruan bota behar duzu eta gero magia hori gogortu.

–Bale, saiatuko naiz –esan zuen Ikerrek.

Bere magia dena, inguruan jarri zuen eta gero magia hori gogortu eta bai!!!

–Lortu dut!!! –esan zuen Ikerrek.

–Bai, oso ondo Iker –esan zuen Shirkeiek.– Orain tximista egiten erakutsiko dizut.

–Bale. Nola egiten da??? –galdetu zuen Ikerrek, poz-pozik.

–Tximista gutxitan erabiltzen da, euria dagoenean egin daiteke bakarrik. Adibidez, orain egin daiteke, eguraldi txarra dagoelako. Egin behar dena erraza da egitea, baina batzuetan gaizki irteten da eta orduan, zuri egiten dizu kalte.

–Zer egin behar da??? –galdetu zuen Ikerrek.

–Zuk egin behar duzun gauza bakarra, lainoetara magia bidaltzea da eta gero, magia hori busti egiten da lainoetan eta gero zuk, nahi duzun lekura jausten da eta pertsona, momentuan hiltzen da.

–Zer nolako kalte egiten du, gaizki egiten baduzu??? –esan zuen Ikerrek.

–Belarriko minak, buruko mina eta gauza gehiago. Kalte handiak ez dizkizu egiten, baina, 5 aldiz baino gehiago irteten bazaizu gaizki egun batean, zure heriotza bat-batekoa izango da.

–Bale.

Ikerrek bere magia zerura bidali zuen eta lainoetan zerbait gertatu zen. Bat-batean tximista bat jausi zen zerutik.

–Lortu duzu Iker!!!! Zorionak!!!! –esan zuen Shirkeik.

–Bai!!!! Lortu dut!!!! –esan zuen Ikerrek.

Iker oso pozik zegoen, bazekielako bi sorginkeria egiten, eta laster lau ikasiko zituelako.

–Oso ondo goaz, Iker –esan zuen Shirkeik.

–Bai –erantzun zuen Ikerrek.

–Orain sendatzeko gaitasuna ikasi behar duzu.

–Zer egin behar dut?

–Zure magia pertsonaren zaurira bidali behar duzu.

–Bai, baina orain ez dago inortxo ere zauriturik.

–Zuk hori egiten baduzu, sendatuko duzu –esan zuen Shirkeik.

–Orain terremotoa erakutsi behar dizut egiten. Terremotoa oso-oso gutxitan erabili behar da. Zure bizia arriskatzen duzu eta gainera, zure bizitza osoan bost aldiz bakarrik egin daiteke

–Bai.

Shirkeik erakutsi zion nola egin terremotoa eta Iker konturatu zen oso-oso zaila zela egitea. Bere magia dena lurrean jarri behar zuela eta gero, zulo moduko bat egin behar zuen, baina aurrerantz.

Hiru egun geroago, Shirkei eta Iker goizean goiz jaiki ziren. Shirkeik esan zion beste leku zabalago batera joan behar zirela, dragoiaren mugimenduak erakustera. Ikerrek esan zion beste leku hori non zegoen eta Shirkeik esan zion urruti zegoela. Lo egin behar zuela ere esan zuen.

6 ordu eta erdi pasatu eta gero, Iker jaiki zen eta Shirkei bere ondoan zegoen (dragoiaren gainean).

–Esnatu zara, loti –esan zuen Shirkeik, barre eginez.

–Aaaaaiiiiiiii –esan zuen ahozabalka.

–Hori da gure armadaren gaztelua. Ikusten dituzu dragoi horiek???

–Bai –erantzun zuen Ikerrek.

–Hortxe erakutsiko dizute dragoiaren mugimendu batzuk egiten.

–Bale. Zenbat egun falta dira gerrarako?

–Hiru egun –esan zuen Shirkeik.

–Dragoiaren mugimendu asko ikasiko ditut hiru egunetan??? –galdetu zuen Ikerrek.

–Batzuk –erantzun zion Shirkeiek.

Momentu batzuk geroago, Iker eta Shirkei gaztelura iritsi ziren.

–Hola Shirkei –esan zuen pertsonak.

–Hola –esan zuen Shirkeik.

–Zela duzu izena? –galdetu zion Risak.

–Iker –erantzun zion.

–Ongi etorri gure jauregira –esan zuen Risak.

–Mila esker.

Geroago Iker eta bere maisua (dragoiaren mugimendu batzuk erakutsi behar zizkiona), bakoitza bere dragoiarekin joan ziren zerura.

–Ni Ronen naiz –esan zuen pertsonak.

–Ni Iker deitzen naiz.

–Bale Iker, saiatu bira bat egiten –esan zion Rounenek.

–Bale, baina jausten banaiz zer???

–Ez zara jausiko, nik babestuko zaitut.

–Bale.

Iker hasi zen bira egiten. Lehenengotan beldurra sentitu zuen, baina gero, ez zuen beldurrik, bira pila bat egin zituen eta gero Rounenengana joan zen mareaturik, bere dragoiaren gainean, ia ezin kontrolaturik.

–Oso ondo Iker –esan zuen Rounenek.

–Erakutsi zerbait gehiago –esan zuen Ikerrek barre maltzur batez.

–Erakutsiko dizut, baina kontuz ibili behar duzu.

–Bai.

Geroxeago, Rounenek esan zion Ikerri, berak magiarekin tximista batzuk egingo zituela eta berak, saihestu egin beharko zituela.

Ikerrek pozik baietz esan zion. Rounenek botere handia zuenez tximista onak eta indartsuak jaurtitzen zituen.

–Oso ondo zoaz –esan zion Rounenek.

–Mila esker.

Rounenek jarraitu egin zuen, mugimendu gehiago irakasten.

Bi egun pasa ziren, eta hurrengo egunean gerra izango zen. Iker gauean goiz joan zen lotara, hurrengo egunean goizean oso goiz jaiki behar zelako. Shirkei ere goiz joan zen lotara.

Iritsi zen eguna. Goizean goiz esnatu zuen Shirkeik. Armadura janztera joan ziren eta Iker aho zabalik geratu zen armadura denak ikusitakoan.

–Horrenbeste gara? –galdetu zuen Ikerrek.

–Horrenbeste? Besteak askoz ere gehiago dira –erantzun zion Shirkeik amorruz.

–Askoz ere gehiago? –esan zuen Ikerrek.

–Bai. Gure ejertzitza 3.000.000ra ere ez da iristen eta haiena 6 milioikoa da.

Ikerrek ez zuen ezer ere gehitu, ezin zuelako hitzik egin.

Bi ordu geroago, Iker eta Shirkei dragoi baten gainean zihoazen erasotzera. Kontrakoak ikusi zituztenean, denak armadurak jantzi eta borrokara igaro ziren. Ikerrek txarren dragoi baten kontra egin behar zuen. Lehenengo besteak atakatu zuen baina Ikerrek, ezkutu protektore bat egin zuen eta dragoiak errebotatu egin zuen. Ikerrek ez zekien zer egin dragoi hura hiltzeko eta erabaki zuen, lehenengo berak atakatzea, eta hola esan eta hola egin. Beti beste dragoiak atakatzen zion, baina 20 minutu geroago, beste dragoia kantsatzen hasi zen. Orduan Ikerrek pentsatu zuen momentu egokia zela tximista egiteko. Tximista egin zuen eta dragoiari hego batean eman zion. Laster, dragoia beharantz joan zen eta bertan zegoen pertsona, dragoitik jausi zen. Ikerrek bere barrurako hauxe esan zuen: “Dragoi hau libratu dut, orain beste batengana joango naiz”.

Minutu batzuk geroago beste dragoi baten aurka egin zuen. Hura erraz menderatu zuen.

Ikerrek bere buruari galdetu zion, ea non egongo zen Shirkei eta bere bila hasi zen.

Momentu batzuk geroago ikusi zuen. Dragoi baten aurka zebilen. Ikerrek pentsatu zuen, bere lanean jarrai zezala eta aldendu egin zen.

Ikerrek ezin zuen gehiago eta basora joan zen deskantsatzera. Basoan zegoela, arbola baten ondoan etzan zen eta zzzzzz!!!!!! lo hartu zuen.

Ordu batzuk geroago, Iker jaiki zen, ez zekiela non zegoen. Aireratu zenean bere dragoiarekin, ikusi zuen bere taldekoak, errenditzeko zorian zeudela. Iker orduan, beste dragoi bat aukeratu, eta zuzen zuzenean jaitsi zen. Beste dragoiak ez zuen ikusi eta orduan Ikerrek bete-betea jo zuen. Dragoia bat-batean joan zen lurrerantz. Orduan ikusi zuen beste dragoi pila bat berarengana zihoazela eta Ikerrek, bira eman eta ziztu bizian joan zen beste leku batera.

Dragoiek jarraitu egin zioten eta Iker konturatu zen alferrik zihoala beste leku batera lehenago edo geroago harrapatu eta hil egingo zituztela, bera eta bere dragoia.

Bat-batean, zarata izugarri bat entzun zen. Basotik adarbakar pila bat

azaldu ziren eta zerutik dragoi mordo bat. Orduan Ikerrek eta bere ejertzi-toak atakatu egin zuten adarbakar eta dragoi berrien laguntzaz.

Egunak eta egunak jarraitu zuen gerrak. Txarrak, poliki-poliki atzera egiten zihoazen eta Iker eta bere ejertzitza, aurrera eta aurrera.

Ikerrek-eta irabazi zuten gerra. Poz-pozik ospatu zuten garaipena eta kon-turatu zen, etxera bueltatzeko ordua zela. Baina ez zekien nola joan etxera eta Shirkeiri galdetu zion.

–Shirkei, oso ondo pasatu dut zurekin, baina agurtzeko ordua da hau. Ba al dakizu nola joan mundura?

–Oso ondo ez, baina bai.

–Orduan bihar goizean joango naiz.

–Ados nago –esan zuen Shirkeik.

Egun horretan, oso ondo egin zuen lo.

Hurrengo goizean jaiki zen eta Shirkei esnatzera joan zen.

–Shirkei, Shirkei –esan zion isil-isilik.

–Zer nahi duzu? –esan zuen Shirkeik ahozabalka.

–Lurrera joan behar dut.

–Iker, oso goiz da.

–Berdin zait, joan egin behar dut.

–Bale, zuk nahi duzun bezala –erantzun zion Shirkeik.

Momentu batzuk geroago, Shirkeik Iker basora eraman zuen eta lurrean, etorri zen moduko tramankulu bat egin zuen magiaren bidez.

–Iritsi da momentua –esan zuen Shirkeik.

–Agur –esan zuen Ikerrek ia negarrez.

–Agur, bai.

Besarkada handi bat eman zioten elkarri. Iker tramankuluan sartu eta Shirkeik hitz magiko batzuk esan zituen eta momentu batzuk geroago bere etxe aurrean zegoen. Berrito ere munduan.

Ama eta aita irten ziren tinbrean zein zen jakiteko eta izugarrizko poza hartu zuten. Ikerri sarrera beroa egin zioten. Txokolate beroa hartu zuen.

Amari eta aitari kontatu zien zer egin zuen unibertsoaren beste aldean. Aitak eta amak esan zioten idazlan bat egiteko eta Ikerrek nik bezalako idazlana egin zuen.

Ipuinak

Bosgarren taldea

1. Saria



Elene Etxariz

Lixiba usaina

Lixiba usaina

Eskuak sudurzuloetara urreratu ditu. Lixibak azalari kolorea jan ez ezik, almendra usaina ere kendu dio. Esku fin leunen ukia eta gaztetasuna lapurtu. Ingurukoak begira dauzkala sentitu du. Lixiba usaina dario bere azaleko poro bakoitzari, badaki. Londresko lurrazpiko autopista honetan denbora bera ere gelditu egin da lixiba usainaren jatorria bilatzeko paradatxo hartu asmoz. “West Kensington”. Linea berdea. Ilunabarra kanpoan, argi artifizialek argitutako iluntasuna hemen azpian. Pixa usaina geltokiko pareta zaharren ertzetan. “Please, mind the gap between the train and the platform”. Eta emakume txikia trenera igota, jendetzaren erdian eskuak sudurraren kontra, lixiba usainak gatibatuta. Trena gelditu egin da. “South Ealing”. Mugitu al da trena hartu duen geltokitik? “West Kensington”. “South Ealing”. Ez da konturatu. “Please, mind the gap between the train and the platform”. Kontuz aterako da, bai, ez du zuloan hanka sartuko. Londrestar peto-petoe gisan, begiak itxita ere saihestuko luke ditxosozko zuloa. “Please, mind the gap between the train and the platform”.

Eskailerak eta igogailua. Eskailerak edo igogailua. Korridore iluna. Pixa usaina. Edo igogailua. Igogailua jendez lepo, edo korridore iluna, hutsik bere zain. Pasillo osoa berarentzat bakar-bakarrik. Pixa usaina? Eskuak sudurrari itsatsita, ez, lixibak dena garbitzen du. Lixibak dena tapatzen du. Dena estali. Norbere pentsamenduak ere bai, sentimenduak ere bai. Bai, lixiba usainak buroa nahasten dio. Korridorean aurrera egin ahala, bidea argitzen doa. Usai-

menak lanean jarraitzen du, lixiba usain nazkante honek garunazalaren zati-txo bat jardunean mantentzen du. Biolin baten nota malenkoniatsuek jo dute orduan emakumearen tinpanoaren kontra, bortizki. Agudo egin dute kortexerainoko bidea, lixiba usainari musika ipiniaz. Eta ikusmena batu zaie orduan gainontzeko zentzumenei.

Jack ikusi du korridore estuan, traje beltz higatua soinean. Betiko gorbatako korapilo aldrebesa, betiko ile nahasia. Lixiba usaina hartu du hark ere. Begiak ireki eta emakumeari begira geratu da. Dora. Parez pare geratu dira biak ala biak. Jack-ek ezkerreko eskua mugitzeari utzi dio, isildu egin da lurrazpiko mundua. Begiak itxi ditu berriz eta emakumeak ere gauza bera egin du. Jack-en eskuak berriz ekin dio dantzari, melodia desberdina da oraingoan. “Hallelujah”. Segituan igarri dio Dorak nota berrien nondik norakoari.

“Hallelujah”. Kantu honekin lotzen du emakumeak sekula bizi izandako gaurik ederrena, egun oraindik lantzean behin amesten duen gau hura. Leonard Cohenen kontzertua. Gaztea Leonard Cohen, gazteagoak Dora eta Jack. Lixiba usainik ez artean neskaren eskuetan, Jack-en trajea beltz distiratsu. Kontzertua amaitu osteko bis-arekin akordatzen da, akordatu. Jack-en apartamentu txikiko “Hallelujah”. Bere soineko beltz liso eta elegantea. Ez, ez zen lisoa. Bolanteduna zen, olatu bihurriak han hemenka belaunburuetaraino. Baina ez zen lisoa. Eta ez zen beltza, gorria baino. Orduan oraindik ez zen beltzez janzten. Ez beltzez bakarrik bederen, orain egiten duen gisan. Orduan maite zituen koloreak, Leonard Cohen bezain beste ia-ia. Orduan ez zekien lixibak nola jaten zituen koloreak dena zuri bihurtzeraino, nola jaten zuen azalaren ukia eta tapatu almendra usaina. Urteen joanarekin aldatzen joan da Doraren akordua. Memoria ere jaten du, antza, lixibak. Baina ez dio axola. Soinekoa beltza eta lisoa zen eta kitto.

Ez daki seguru nola elkartu ziren, nola hasi ziren hizketan. Ez daki seguru Jack-ek oratu ote zion eskutik lehenengo edo berak iltzatu ote zion begirada aurrena. Ordena bata zein bestea izan, aipatutako denak gertatu ziren. Eta Dora soineko beltz liso eta elegantearekin, pozik. “Please mind the gap between the train and the platform”. Norbaitek abisatu izan balio sikiera...

Lagunekin joan zen Dora Leonard Cohen ikustera. Maite zuen gizon hura, maite amonaren etxeko irrati zaharrean estreinakoz entzun zuzenetik. Maite zituen haren boza, pianoa eta hatzen mugimendu arina tekla beltz eta zurietan aurrera eta atzera dantzan. Iluna eta argiaren arteko oreka perfektua nota kate amaigabeen bilduta. Beltza eta zuria. Metroko zulo beltza, lixibaren zuri koloregaldia. Eta bien tartean Jack-en traje grisa. Ez, orduan oraindik ez zuen Jack ezagutzen.

Irratiaren bestaldean ikusten zituen Leonard-en begiak abesten zuen bi-tartean, imajinazioaren mugak gaindituta sinesterraino ikusi ere. Berari kantatzen ziola sentitzen zuen *“You saw her bathing on the roof, her beauty and the moonlight overthrew you”*... Berari kantatzen zion. Bel-larrira xuxurlaka batzuetan, begietara begiratzera ausartzeke bestetan. Horregatik erabaki zuen haren kontzertura joango zela egunen batean. Erabaki eta egin. Eta hantxe ezagutu zuen Jack. *“Please, mind the gap between the train and the platform”*. Ameslaria izan da beti Dora.

Ez daki kontzertua amaitu ostean alde egin zuten areto erraldoi hartatik edota orduak pasatu zituzten atarian hizketan. Edo isilik. Ez da akordatzen oinez edo taxian joan ziren apartamentu txikira. Metroan joango ziren, akaso. Eurria ari zuen. Blai eginda iritsi zen Jack-en gorbata, ile aldrebestua. Mela-mela eginda Doraren soineko beltz berez bolantedun baina uraren pisuak lisatua. Tantaka Doraren kuleroak.

Gustura hartu zuten etxeko epela, kalean euria. Ez, euririk ez. Elurra mara-mara Londresko urtarril hotzean. Mela-mela Jack. Blai eginda Dora. Eta bere kuleroak. Leonard Cohen *“toca-discos”* zaharrean. Blai Doraren kuleroak. Atzetik hurbildu zitzaion Jack, hala gogoratzen du Dorak. Eskuineko tirantea irristatu zion besoan barrena aurrea, ezkerrekoa hurrengo. *“Kremailera dauka albo batean, kontuz tira egin”*. Tentuz askatu zuen kremailera, tentuz tiratu soinekoari beherantz. Hantxe utzi zuen kieto, Doraren gerrian. Adatsean bildutako ile bustia askatu zion orduan, kizkur gorrixkarak liberatu. Eta xanpu usaina. Eta kuleroak mela-mela. Azalak almendra usaina, tentazioa. Ezpainak pausatu zituen neskaren lepo barreanean. Almendra eta xanpu zaporea. Kon-

taktu epela. Ezpainak ezpainekin gero. Kontaktu umela. Bularretakoa askatu zion. “Please, mind the gap between the train and the platform”. Baina ordu-rako kuleroak busti-busti. Eta Hallelujah kantua “toca-discos” zaharrean. Leonard Cohen nonbaitetik begira, nonbaitetik xuxurlaka. “*And every breath we drew was Hallelujah*”... Gorbata askatu zion Jack-i. Baita alkandora ere. Eta askatu gerrikoa, praketako botoiak. Jack-ek hartu zuen errelebua gero. Traba egiten zion soinekoak Doraren gerrian, antza. Tira egin zion zakar samar oinetara erori arte. Mutilaren ezpainek zilborrera bidea hartu zuten, behera eta behera bila-bila, erakusleekin kulero umelak eranzten zizkion bitartean. Hasperen egin zuen Dorak. “Hallelujah”.

Ez du gerokoak gogoratzeko betarik izan. Amaitu da abestia, isiltasuna eta lixiba usaina jabetu dira ostera ere lurrazpiko korridore ilunaz. Begiak ireki ditu Dorak, begiak zabaldu Jack-ek. Kuleroak blai berriz ere. Ez daki benetan bizi izan zuen gau hura edo bere imajinazioaren fruitua ote den horrenbeste errepikatzen zaion fantasia. Ameslaria izan baita oso Dora, betidanik. Elkarri begira jarraitzen dute. Gizonarengana urreratu da emakume txikia, elkarren arnasa sentitzen dute. Gorbata askatu dio, behinola errealtatean edo ametsetan egin zuen modura. Ezpainak batzeko desioa bien begiradan. “Please, mind the gap between the train and the platform”. Kasu egingo dio, ez da berriz zuloan eroriko. Esku biekin gorbataren alde bana oratu eta korapilo dotorea egin dio.

Buelta erdi hartu eta bere bideari ekin dio berriz Dorak korridorean barrena, kuleroak bustita, Jack-en biolinaren nota malenkoniatsuak atzean lagata. Eskuak sudurrera gerturatu ditu. Lixiba usaina. Ez, dagoeneko ez daukate lixiba usainik. Bero sargoria egiten du kanpoan. Eta bera beltzez jantzita. Laster lehortuko al zaizkio kuleroak, behinik behin.

Ipuinak

Bosgarren taldea
2. Saria



Nerea Mujika

Agur polit bat

Agur polit bat

1.

“Bizitzan gertatzen diren gauza guztiak beste batzuekin loturik daude”. Hau da zuk irakatsi zenidan gauzarik garrantzitsuenetarikoa, aitona. Eta, egia esaten badut, zuzenena ere bai.

Sinesgaitza da, adibidez, bizitzako gauza txar batetik, zerbait ona irtetea; sinesgaitza, baina egia.

Inondik ere ez nuen nik esperoko zure joanetik edozer onik agertzea.

Nire bizitzako egunik ilunena izan zen, aitona, apirilak 11. Gogoan dut, eskolatik etxera itzultzean eta zu bertan ez ikustean nire kezka; eta gogoratzen dut, baita ere, minutu batzuk beranduago Tokioko ospitaletik jaso nuen dei hura, nire pentsamendurik baztertuenak baieztatu zizkidana. Lasterka batean sartu nintzen autora, eta hamar minuturen buruan ospitalean nengoan.

Oraindik gogoan dut nire eskuen dardara kontrolaezina, bihotza ahoan sentitzearen estutasuna, ospitale handi horretako korridoreetatik lasterka nindoanekoa.

Ez zitzaidan asko kostatu aurkitzen zinen gelarekin ematea. Arnasa sakon hartu, eta barrura sartu nintzen. Ondoren gertatu zen dena oso lausoturik dau-

kat memorian, blokeaturik balego bezala. Hala ere, gogoan ditud mediku ha-
ren hitzak: “Yu, ez dut uste zure aitona honetatik irtengo denik. Sentitzen dut”.
Horren ondoren akordatzen naiz zure alboan pasa nituen hiru gau luzeak, ai-
tona; geldi-geldi eta aparatuz beterik zeunden. Eta, azkenik, apirilaren 11n, ge-
latik irteteko eskatu zidaten, gero “Ahal genuena egin dugu...” xume bat esa-
teko. Aste osoak egon nintzen hitz horiek neureganatzen.

Zu nire bizitzako pertsonarik garrantzitsuena izan zinen jaio nintzenetik.
Zu izan zinen, aitona, jaioberria nintzenean eta gurasoak istripu batean hil zi-
tzaizkidanean, etxean besoak zabalik hartu ninduzuna; zu izan zinen horren-
beste maitasun eta zuhertasunez hezi ninduen; zu zeu munduari eta per-
sonei buruz horrenbeste gauza irakatsi zidana...

Gogoan dut, aitona, zure aurpegiera bitxi hori, japoniarrak ez ziren begi
handi horiekin begiratzen zenidanean, “Yu, bizitzan ezin da atzera egin..., ho-
rregatik da hain gogorra eta hain polita”. Aitona, kontatu mesedez ipuin bat,
gauero berdin. Hasieran ezezkoa egiten zenuen, nekaturik zeundeneko plan-
tetan hasi, baina barren-barrenean banekien irrikaz zeundela istorio bati ha-
siera emateko.

Joan zinenean zeharo bakarrik nengoen, galdurik. Esan beharra daukat
inoiz ez nintzela nire tokian behar zen bezala sentitu, zurekin nengonean izan
ezik. Beharbada desberdina nintzelako izango zen, ez dakit. Adibidez, ez
neukan nire ikasgelako (eta gutxi gora-behera Japonia osoko) guztien moduko
ile beltz eta lisoa; horren orde, gaztaina koloreko ile kizkurra neukan, eta bes-
teenak bezalako begi txiki japoniarren orde, begi berde eta handiagoak nituen;
misterio bat zen niretzako hau dena. Baina dena ez zen itxuraren kontua, ez.
Lagun gutxi neuzkan, eta nituenengandik ere ezberdina nintzen; zu zinen uler-
tzen ninduzun bakarra.

2.

Egunak eta egunak eman nituen iluntasunean. Ez nuen ezer jaten, etxetik
ere ez nintzen irteten, zeharo galdurik nengoen, eta gaua eta eguna nahasten

nitueneko puntura iritsi nintzenean, horrek horrela jarraitu ezin zuela pentsatu nuen. Bai, aitona, zuri agur esateko modu bat aurkitzen hasi nintzen, benetako agur bat, maitasunez beteriko agur bat. Beraz, zure gauzak zuk utziriko moduan egongo ziren tokira joan nintzen: zure logelara.

Atea ireki nuenean, milaka emozioak bildu ninduten. Zure usaina, aitona, mendiko gereziondoen eta haize freskoaren nahasketa usaintzeak; zure ohea hutsik ikusteak; armairua erdi irekirik, zuk utziriko moduan; aulki gainean hainbeste maite zenuen larruzko jaka, inoiz gehiago jantzia izango ez zena... Poliki-poliki sartu nintzen, eta aspaldiko partez, zure ohean etzan nintzen. Horrenbeste barre, kontaturiko istorio, bizitzari buruzko irakastaldi, lehorturiko malko gutxi batzuk... Horrenbeste momentu ezberdin zure alboan bizi ondoren, pof, amaitu zen dena, agur.

Ohetik altxatu nintzen. Zerbait behar nuen, aitona, zuri agur esateko. Ez nekien ongi zer, baina nire barruan egonezin deseroso hori sentitzen nuen. Zure logela aztertzen hasi nintzen. Ez zegoen gauza gehiegirik, egia esanda. Idazmahai huts bat eta bizpahiru argazki. Armairu zabal bat, leiho handi bat estaltzen zuen gortina horia, eta han, bai, gortinaren behealdean, erdi ezkutatuturik, zurezko kutxa bat antzeman nuen, metro-erdi edo neurtuko zuena. Ez zidan ilusio handirik egin momentuan, egia esanda; zuk arropak gordetzeko kutxa ximel bat izango zela pentsatu nuen... Hala ere, hurbildu eta kutxa ohe gainera jaso nuen. Hura bai pisua zeukana!

Giltzaz itxirik zegoela ikusi nuenean, ordea, jakin-mina piztu zitzaidan. Zer zenuen, aitona, nigandik ezkutatze...? Ez zitzaidan asko kostatu irekitzea, egia esaten badut, kutxaren tapari bultzada txiki bat emanda lortu bainuen.

Erdi irekirik zegoen leihotik udaberriko haize apur bat sartu zen gela barrura. Nire begiak kutxaren barnealdea arakatzen hasiak ziren. Dena oso nahasturik zegoen bertan. Argazkiak, eskuz idatziriko hainbat paper, zenbait mapa, koloretako oihal zati txiki bat, liburuak...

Bertako argazki bat eskuetan hartu nuen. Zu agertzen zinen bertan, aitona, gazte-gazte, beste gizon bati eskua sorbaldeetatik pasatzen. Zuri-beltzean ze-

goen errebelaturik, eta ikusteaz batera ohartu nintzen oso zaharra zela. Buelta eman nion argazkiari. Bertan, beste hizkuntzaren bateko hitzak agertzen ziren, eta data bat. “Abadiño, 1937”. Zer zen hura?

Eskuz idatziriko zenbait orrialde ere bazeuden kutxan. Baina hori ez zen japoniera, ez. Beste alfabeto bat zen, zeharo desberdina. Oihal zatia hartu nuen eskuetan. Gurutze zuri bat zen oihal guztia zeharkatuz, atzetik kolore berde eta gorriak zituelarik; bandera bat zirudien.

Salto batez altxatu eta nire gelatik ordenagailu eramangarria hartu nuen. Ondo dakizu zenbat amorrarazten ninduten ez nekizkien gauzek... Ez zitzaidan larregi kostatu nahi buena aurkitzea, egia esanda. Inoiz entzuna ez nuen toki bateko bandera zen, Europako hego-mendebaldean zegoena: “Euskal Herria”.

Izugarrizko jakin-mina eta nahastea sentitzen nuen nire barnean. Zer dela eta zure interesa lurralde horrekiko? Argazkiak ikusten jarraitu nuen. Gehienetan zu agertzen zinen, gazte, irribarretsu, ezagutzen ez nituen pertsonen inguraturik, ezagutzen ez nituen tokietan.

Orduan, nire buruan ideia batek tokia hartu zuen. Ez, ezin zen egia izan. Aitona..., kanpotarra...? Egia esanda, nik betidanik nekien zu ez zinela japoniarra. Zure begiak, sudur kakoduna, belarri handiak... Behin baino gehiagotan galdetu izan nizun txikitan, ea nongoa zinen benetan. “Yu, japoniarra naiz. Nire gurasoak ez, ordea...”. “Berdin du nire begiak handiagoak edo txikiagoak izatea...”. Misterio bat zen niretzat, baina inoiz ez zenion garrantzirik eman, beraz, nik ere ez.

Momentu hartan, ordea, dena lausoturik neukan. Zurezko kutxan begiratu nuen berriro, zerbaitek erantzungo zidanekoan banengo bezala. Pasaporte antzeko txartel bat ikusi nuen kutxa bukaeran, berriz ere ezagutzen ez nuen alfabetoan idatzia,

Argazkikoa zu zeu zinen, aitona.

3.

Dena azkarregi gertatu zen ondoren. Familiako zuhaitz genealogikora begira eman nituen orduak. Amonaren datuak banituen, bai, asko gainera. Zureak, ordea, aitona... Ezer ez. Ez zinen japoniarra, kanpokoak zinen. Bizitza guztia zurekin pasa ondoren, zu joandakoan ohartu nintzen. Zergatik ezkutatatu zenidan, aitona...?

Bi aldiz pentsatu gabe joan nintzen Tokioko aireportura, zure zurezko kuxa eta maleta batekin besapean. Ihes egin behar nuelakoan nengoen, aitona, oroitzapenak atzean utzi. Nolabait traizionatua sentitzen nintzen, bizitzako zati handi bat gezur bat izango balitz bezala. Eta ezin nituen gauzak horrela utzi. Zuri agur esateko modu bat bilatzen saiatu eta honekin aurkitu nintzen...

—Jaun andreok, lurreratzeraz goaz.

Ahotsak lozorrotik esnatu ninduen. Segundo batzuetan non nengoen ere ez nekien...

Nora nindoan gogoratu nintzenean, ordea, hotzikara batek zeharkatu ninduen. Leihatilatik begiratu nuenean, aho zabalik geratu nintzen. Hain berdea zen dena! Milaka mendi ikusten ziren handik eta hemendik, herrixka batzuk beraien haranetan, pinudi mordo bat, zenbait errekatxo...

Gogoan dut hegazkinetik jaitsi nintzeneko nire ezinegon eta urduritasuna. Behin mundu erdi zeharkatuta, hobeto pentsatzen hasi nintzen, zuhurtasun gehiagorekin. “Eta orain, zer? Zertara etorri naiz?, Zer egin behar dut nik orain?”.

Orduan, argazki hartan ikusi nuen inskripzioaz gogoratu nintzen: “Abadiño, 1937”. Ordenagailua atera nuen poltsatik, eta informazioa bilatzen hasi nintzen. Gutxira jakin nuen Abadiño ni nengoen tokitik ez oso urrun zegoen herri txiki bat zela, eta suposatuta nuenez, zuk han aterako zenuen argazki hura, beste gizon harekin hain irribarretsu zeundena.

Buelta gehiegi eman gabe, taxi batera sartu nintzen. Nekien ingelesarekin adierazi nion gizonari Abadiño izeneko herri batera joan nahi nuela, eta

inongo geldiunerik gabe iritsi nintzen bertara, hogei minuturen burura. Zure kutxa eta maleta eskuetan hartu, eta arnasa sakon hartu nuen.

Inoiz ikusi nuen herririk politena zen. Etxe multzo batek eliza zahar eta polit bat inguratzen zuen; han eta hemen, edozein tokitara begiratzen nuela mendiak ikusten nituen, noizbehinka artalderen bat han goian, noizbehinka baserri zaharren bat.

Udaletxea zirudien eraikin sendo baten aurrean gelditu nintzen. Hor la-gunduko zidatelakoan, kutxatik bertaraino eraman ninduen argazki hura atera, eta barrura sartu nintzen. Gogoan dut zein zaila egin zitzaidan hasie-ran hangoekin komunikatzea. Argazkia erakutsi, eta ingelesez, ea bi gizon ho-riei buruzko informazioa aurkitu nezakeen galdetu nien. Hau segituan ulertu zidaten.

Artxibadore zahar batera eraman ninduten, argazkiz beterikoa. Ingeles bi-kaina zeukan mutil gazte bat etorri zen nigana, eta argazkiaren data ikusi on-doren, karpeta handi bat erakutsi zidan.

Ondoren, helbide sorta bat eta euskarazko hiztegitxo txiki bat eman zidan, eta martxan ipini nintzen.

• • • • •

Urduri nengoen. Egia esan, ez nien ongi ulertu noren etxera nindoan, baina ulertu nuena aitonaren lagun batena zela izan zen. Argazkia nirekin ne-raman atea jo nuenean.

Nire deira lauorgei bat urteko emakume txiki bat agertu zen. Ile urdindua garondoan baturik zeukan, eta zimurrez beteriko aurpegian bizitza luze bat antzematen zen.

—Kaixo —, hori zen nekien hitz bakarra. Emakumearen begietan harri-dura eta nahasmena ikusi nituen niri begira zegoen bitartean. Orduan, ar-gazkia erakutsi nion. Emakumeak begiak erdi itxi zituen ondo ikusteko, eta irribarretxo bat egin zuen. Begietara begiratzuz, etxe barrura sartzeko eskatu zidan.

Egongela txiki batera sartu ginen. Emakumea hizketan zebilen, gelditu gabe, arnasarik hartu gabe. Ni, isil isilik, nahasmenez berari begira. Ulertzen ez niola ohartu zenean, ordea, buruarekin baiezkoa egin eta norbaiti deitu zion oihu batez. Orduan ile gorridun neska bat agertu zen egongelan, nire adin berdintsua izango zuena. Emakumeak zerbait esan zion, eta neskak irri-barretsu begiratu zidan.

Ingelesezt zekien, eta emakumearen biloba zen, Haizea. Mahai baten inguruan eseri ginen hirurok, zure argazkia erdian genuela. Emakumea hizketan hasi zen, eta nik Haizeari esker jakin ahal izan nuen zeri buruz zebilen.

—Ni Haizea naiz, eta hau Bittori da, nire amona. Hasi aurretik, zu nor zaren jakin nahi du – esan zidan neskak.

—Ni Yu naiz. Argazki honetan agertzen den gizonetako bat nire aitona da, orain dela gutxi hil dena..., eta argazki hau aurkitu dut. Zerbait gehiago jakin nahi dut, eta udaletxekoek hona bidali naute —arnasaldi batean eta nekien ingeles garbienarekin esan nuen dena.

Haizea amonari nik esandakoa itzultzen zebilen bitartean, emakumearen begiak nigan nola pausatzen ziren ikusi nuen, emozioz beterik. Ulertu ez nion zerbait esan zuen, eta ondoren, bukaerarik ez bazuen bezala hizketan hasi zen.

—Zure aitona nire aitonaren lagunik minena izan zen orain dela urte pilo bat. Argazkikoa nire aitona da, zurearen alboko gizona, duela gutxi hil zena baita... Orain kontatu behar dizudana oso jende gutxik daki, eta garrantzi handia dauka guretzat, eta zuretzat ere bai —Haizeak arnasa sakon hartu zuen, eta hizketan jarraitu zuen.—Gerra garaia zen, eta zure eta nire aitona frentean batera zeuden borrokatzen. Orduan, beraiek egin ez zuten zerbait leporatu zieten gobernukoek. Egia esanda, nik ere ez dakit ongi zer izan zen, gerrako kontuak, ez dakit; baina zerbait larria zen. Leporatze horrek bizitza osorako kartzela zigorra zekarrela zen kontua. Nire aitonak familia osatua zeukan ordurako: amonarekin ezkondata zegoen, eta hiru seme-alaba zituzten. Beraz, zure aitonak zerbait erabaki zuen, inoiz eskertu ezin izango diogun zerbait.

Berak hartu zuen gertatu zenaren errua, nire aitona aske utzi zuten, eta zure aitona ihes egin zuen, betirako desagertuz. Handik aurrera, herrian gerran hildakotzat hartu zuten zure aitona. Bere familiakoek ere ez dakite istorio hau... Injustua da, baina inori ezer ez esateko agindu zion nire aitona zure-ari. Eta hala izan da.

Bittori isilik gelditu zen, niri begira.

—Eta orain ezin du sinetsi zu bere biloba zarela. Joan zen tokira joan zela, beste bizitza bat hasi zuela, eta zoriontsu izan zela. —Haizeak bukatu zue-nean, emakumearen begiak malkoz busti ziren, eskua laztantzen zidan bi-tartean.

Hau guztia sinesgaitza egin zitzaidan. Zu, aitona, zu zeu, lagun bati bi-zia salbatzearen dena atzean utzi zenuena, zerotik hasi zena, horren ausarta eta ona izan zina. Orduan ulertu nuen zergatik ez zenidan inoiz ezer kon-tatu: alde batetik, ihesean joan zinen Japoniara, eta iragan zaila zeneukan; eta beste aldetik, gogorregia izango zen zuretzat hainbeste maite zenuen zure he-rria gogora ekartzea.

Emakume hark kontatu zidana behin eta berriz eduki dut buruan zara-taka, aitona. Oraindik ere hotzikara batek zeharkatzen nau, kosta egiten zait dena sinestea...

Entzun nuen guztia neureganatzeko asteak behar izan nituen. Bittorik bere etxean gelditzen utzi zidan, eta bertan pasatzen genituen goizak, eguer-diak eta gauak, zuri buruz hizketan.

4.

Eta hemen nago orain. Zortzi urte pasa dira Euskal Herrira etorri nin-zenetik, aitona. Zortzi zu joan zinenetik, eta lehen bezain presente zaude.

Orain dena dakit zuri buruz. Bittori eta Haizeak eman zidaten laguntzari esker, zure familiakoak aurkitu nituen. Egia esanda ez nintzen asko mugitu, gehienak Abadiñon bertan bizi baitziren.

Lehenengoz zure anai batekin egon nintzen, Paulorekin. Hasieran, sine-tsi ez zidaneko aurpegia ipini zuen, eta haserretu ere egin zen. Baina nik zure alboan eman nuen bizitzako argazkiak erakutsi nizkionean, eta hainbeste kontu kontatu nizkionean, emozioz beterik besarkatu ninduen.

Hori hasiera izan zen, noski. Paulok zure familia osora aurkeztu ninduen, aitona! Eta ez dakizu zenbat maitasunez hartu ninduten. Zure zenbat kontu, zenbat istorio, zenbat pasadizo kontatu diogun elkarri ezagutu ginenetik! Zure kutxa ere goitik behera buruz ikasi dut. Gutun bakoitza irakurri, argazkiak gastatu arte begiratu...

Zure herria zuk maitatu zenuen bezala maitatzen ikasi dut, nahiz eta zuk ezkutuan mantendu zenuen, nire sustraiak nongoak diren ere bai, eta orain inoiz baino gusturago sentitzen naiz nire bizitzarekin eta nire buruarekin. Euskalduna naiz, aitona, eta ziur nago orain ikusiko baninduzun oso harro egongo zinatekeela, ni zurekin nagoen moduan. Lehen asko maite bazintudan, orain are gehiago; bizitzan eduki dudana pertsonarik garrantzitsuena izan zara, eta izango zara.

Hiru seme-alaba ditut, eta asko maite dudana senar bat ere. Zure jaioterrian bertan bizi gara, Abadiñon, pinudi baten alboko etxe batean, eta inoiz baino zoriontsuago naiz.

Ez dut nahi agurrik, aitona, badakidalako beti nire alboan zaudela. Agur polit baten bila nenbilela etorri nintzen hona, eta agurren beharrik ez dagoela ikasi dut, benetan maite dituzun pertsonendako batez ere.

Ipuinak

Bosgarren taldea
3. Saria



Ana Moñux

Bazuen legaturik

Bazuen legaturik

2012ko irailak 15

Hitza(ri)

Nire galbide eta obsesio. Nire pasio kuttuna. Maitasuna klandestino a bakarrik izan badaiteke, gure artekoa egiazkoa da. Nire erbestean agertzen zara eta zure erbestean desioz erreklamatzeko zaitut. Erbestean gara. Eta inoiz ez dugu elkar ikusteko aukerarik izango. Ihes egiten didazu zure bila noanetan. Ezingo nauzu inoiz zure egin. Eta horrela mantentzen dugu desioa bizirik... Desiran mantendu, bizia desiratu, bizi mantendu, desiran bizi; hitzez hitz bizia.

2012ko irailak 20

Oihu egin, mesedez!

Ni ere ausartu nadin

Ekin jolasari!

Baimenduko al diot nire buruari horrela?...

Barre algarak oparitu, pailazokeriak egiten ditugun bitartean...

Hasi zaitez korrika eta nik atzetik jarraituko zaitut,

biok bakarrik bageunde bezala, bion desioa bat bailitzan.

Irristatu daitezela malkoak, nire besarkadak lasaitzen zaituela sentitu dezadan.

Eman musu ustekabe bat, munduak irentsi ez nazan...

Ene alabatxoa, zer nintzateke zure laztanek memoria leunduko ez bali-date...

Orain izu naiz.

Izu naiz noizbait nagusi bihurtuko zarelako.

Izu naiz noizbait nireak ez diren beste musu batzuk aseko zaituztelako.

Izu naiz noizbait nire bularrak, ahoa eta begiak izango ez direlako.

Izu naiz noizbait geroz eta gertuago sentitzen dudalako.

Ni gabe izaten jakingo ez duzunaren beldur naiz.

Amatxo ez denean...

nola izan amatxo ez denean?

Zuk jada ez dakizu herstura nola jasan,

negargura nola eutsi,

zein eskari egin.

Nola eskatu behar dut, ama? Nola esan? Zer izendatu behar dut atzamarraz?:

Hau, hura, beste hau...

edo ezer ez,

zure besoak besterik ez.

Ai maitea, ahal banu...

Ez pentsa dagoeneko ez ditudala zure isiltasunak ulertzen,

Soberan dakit nire begiradaren gose zarela,

oraindik behar nauzula

eta ni ez naizela iristen.

Ez al nintzen ni izan bularraz asetzen zintuena?

Ez al zinen nire eskua lo hartzerakoan indarrez eusten zenuena?

Nire ahotsa ez al zen zure lasaitasuna lortu zezakeen bakarra?

Eta ikusi orain...

Ez, ez ikusi orain,

ohean etzanda nire gorputz mindua eutsi izanda.

2012ko urriak 3

Guztia galdutzat ematen duzun egun horietan,

sekretu bat xuxurlatzen dizute,

zure besarkadaren beroa erregutu,

zure presentzia begirada goxoz eskertu...

eta konturatu gabe mundua itzultzen dizute,

mundura itzultzen zaituzte,

juxtu lekurik ez zenuela sentitzen hasia zinenean.

Zu ere bazarela gogoraraziz,

bizitzarekin zerikusi handia duen barne txokoren bat asaldatuz.

Gezur gehiegi josi ditugu soinean,

Baina hor diraute:

Hitzek... beroak... bizia duen orok...

2012ko urriak 5

Nik zaindu izan zaitut; ahal izan dudan neurrian behintzat. Zu entzuten saiatu naiz, baita ulertezina bihurtzen zinenetan ere. Maitatu izan zaitut. Zure

erritmoak kontuan izan ditut eta soilik benetako laztanei erreparatu diet. Hori guztia zugatik egin dut. Oroitzen kokaina probatzeko irrikaz nengoen denboraldi hura? Zugatik baztertu nuen hura, zu errespetatzearren. Eta ginekologoak pastilla antisorgailuak hartzeko gomendatu zidanekoa? Hari uko egitea ere zugatik erabaki nuen.

Baina badirudi zu ez zarela ezertaz ohartu, bost axola zaizula nik egin-dako esfortzu guztia; gupidagabe bortxatzen bainauzu egunero. Eta iragana alde batera utziko bagenu? Berriz hasieratik ekingo bagenio? Oraingoan eskutik helduta...

Ez zigarrorik ez eta alkohol tantarik. Ezer kaltegarririk ez zure baitan; inoiz gehiago. Etxeko mikrouhin labea, wifia-a, mugikorrak eta eskatzen didazun oro jaurtiko dut leihotik behera! Baina mesedez, ez nazazu bakarrik utzi. Oraingoan benetan behar zaitut.

2012ko urriak 7

Elikadura makrobiotikoan aditua den gizon batekin izan gara gaur goizaldean. Markos du izena. Berak ere minbizia pairatu zuen eta gaur egun sendatuta dago, bizirik.

Beti izan naiz pertsona eszeptikoa, baina ez da ezezkotan aritzeko garaia.

Hunkitu xamar atera naiz bere etxetik, baina gatazkatsu. Ez nekien potatik hartzera bidali edo zorrozki berak esandako guztia betetzen hasi. Beldur handia ematen dit helduleku fantasioso bat izan daitekeela pentsatzeak, esperantza hutsal bat, nire Olentzero propioa. Edo berandu ez ote nabilen ohartzea...

Ezin argi pentsatu, nire esfortzuak itxaropen apurrak jazartzen baititu.

2012ko urriak 8

Askatasunaren maitaleek berotzen naute.

Beraien beldurrak onartu,

eta biluzteko prest dauden horiek.

Jende biluziak nire desio ezkutukoenekin konektatzen laguntzen dit,
nahiz eta beldurtu, nahiz eta min eman...

Bizitzaren alde jostalariaz goatzera bultzatzen naute,
izkina baten ikaratuta ezin gelditzera behartu.

Askatasun egarria kutsatzen...

Horiek dira benetan berotzen nautenak.

Ameslariak, hegan dakitenak.

Zuk berotzen nauzu ni Aitor.

Goibeltzen nau nik zu berotu ezinak.

2012ko urriak 16

(minbiziari)

Zenbat momentu dira bost amets?

Nola neurtu bi begiraden arteko distantzia?

Zenbat da izugarri maitatzea?

Nola azaldu izarrek adinako distira duten pertsonak badirela?

Oinazean murgildu banauzu ere,

gauzen neurria berreskuratu dut...

Paradoxikoki bizitzara itzuliz,

bere tamainan.

Materialtasuna, da(go) edo ez da(go).

Sasi helduok hauek zenbatzen ematen dugun denbora,

etengabeko premia hutsal eta burugabeaz.

Zuk bueltan,
neurtu ezin direnak gogorazten dizkidazu

2012ko azaroak 3

Zein puntutaraino bete behar dira konpromisoak?

Zein da muga, norberarengan pentsatu arren, besteei ahalik eta ondorio negatibo gutxien sortzearena?

Zenbat malko behar dira indarrik ez duzula justifikatu eta etsitzeko eskubidea izateko?

Eta hau besteengandik errespetatua izateko?

Zoriontsu izateko behar adina irribarre?

Gaur Valdesoro medikuak esan dit nire esku dagoela tratamendu berria probatu ala ez. Nire erabakia omen da. Azken aukera dela esan dit.

Erabaki bat hartu,
Adierazi,
kontsekuente izan.
Berebiziko aldaketa.
Bakarka.
Isiltasuna.
Norbera.
Hozituta nago.

2012ko azaroak 10

Arraro dago gaur nire gorputza. Ezin ulertu, ezin antzeman. Nekea, apetitua eza, logalea, eta negargura.

2012ko azaroak 16

Gaur Bilbora joan naiz Valdesorok gomendatutako onkologo espezialistarengana. Ni motel eta mundua bizkorregi zihoan bertan. Denekin talka egi-ten nuen kaleetan barrena, aldeetara begiratu eta larritasuna nabaritzen nuen; eraikin altuak, kotxeak nonahi, publizitate kartel izugarriak.

Itxarongelan zain nengoen bitartean, honetaz guztiaz gogoetan jardun dut, entzun behar nuenaz ez pentsatzeko edo.

Zertan bilakatzen ari den mundua... Jada makinek zerbitzatzen gaituzte den-
detan, liburutegian ez dago emakume goxorik, 15 euro ordua ordaintzen dugu
yoga sesioak baretu gaitzan, eta jatekoak “take away” eskatzen ditugu orain.

Ez dirudi ni naizenik gaixo dagoen bakarra... Lana kondena bat bihurtzen
ari da eta jada inork ez du oroitzen zer izan nahi zuen handitzerakoan, nola
jolasten zuen eguzkipean edo zerk eragiten zion algar... Bidean aurkitzen
duen guztia irensten duen mamu beltza bihurtzen ari zaigu mundua.

Maddi eta Aitor ez baleude, agurra ez litzateke hain mingarria izango.

2013ko azaroak 20

(Maddirentzat)

Maitea, agian ez duzu gogoratuko, baina aitatxo eta biok printze txikia-
ren liburua oparitu genizun oraindik oso txikia zinenean. Zure gelako apa-
lean egon da ordutik. Gogo sentitzen duzunean irakurri dezazun gustatuko
~~litzaidake~~ ezazu, eta horrela, pasarteko hau hobeto ulertuko duzu.

~~Amatxo ama~~ Amatxo galtzea zitalkeria itzela dela badakit, baita mo-
mentu oso zailak pasatuko dituzula ere, orain arteko mingarrienak. Baina
ipuin honek zerbaitegatik liluratzen banau, bere baitan gordetzen duen bi-
zitzagatik da. Ezagutza asko ezkutatzen du. Egoera zailek algarak lapurtzen
eta irribarreak moztzen badizkigute ere; zure haur arimatxoa zainduko dute-
lakoan nago, bai aitatxoak eta bai inguruko guztiek. Baita zuk zeuk ere.

Ipuina

Printze txikia planeta berri batera iritsi zen, zilbor handidun erregea utzi berri zuela eta jende nagusia zein arraroa zen gogoeta egin bitartean. Oraingo hau toki itsusia iruditu zitzaion, iluna eta kolorerik gabea.

Berea bezain planeta txikia zenez, gainbegiratu bati ekin zion norbait aurkitzeko esperantzaz; egunsentiak dastatzeaz gain, beste bizidun batzuk ezagutzea ere izugarri gustatzen baitzitzaion.

Urrunean mutil gazte bat ikusi zuen alde batetik bestera oinez, eta berehala hurbildu zen beragana.

–Kaixo, zergatik zabilta alderik alde ibilian?

–Ikusten duzu lurrean dagoen marra zuri hau? Nire pauso bakoitza marra honen barruan burutu behar dut, nire oinek ez dute inolaz ere beste ezer zapaldu.

Neketsua iruditu zitzaion mutilaren zeregina, zentzugabekoa zela pentsatzeaz gain.

–Eta, planetako beste zati batzuetara joan nahi baduzu? –galdetu zion–. Egia da ez dagoela gauza asko hemen inguruan, baina agian horma gris horien atzean...

–Nik ez dut gehiago nahi, behar dudan guztia marra zuri honen baitan aurkitzen dut.

Printze txikia bere arreta guztiarekin saiatu zen mutilak esandakoa ulertzen, baina ahaleginak ahalegin, ezin zion zentzurik aurkitu.

–Aizu, eta zergatik dituzu poltsiko guztiak paperez beteta? Erortzeaz daudela dirudi... Zer gertatuko litzateke dantza egiteko gogoa sentituz gero?

–Horrat, ulertzen ari zarela dirudi! Zuzen ibiltzea da nire eginbeharra, egin ezean, paper guztiak eroriko litzaizkidake, eta oso oso baliotsuak dira. Horretarako arreta eta gogoa marra zurira bideratzen ditut esnatzen naizenetik lo hartu arte.

Printze txikiak geroz eta gutxiago ulertzen zuen ordea...

–Begira –azaldu zion mutilak– hasiera batean zuk esandako galdera berdina egiten nion nire buruari. Paper bakar bat neraman poltsikoan abentura hau hasi nuenean, eta orduan ez zegoen hura galtzeko arriskurik. Pentsa, dantza eta salto ere egiten nuen garai hartan. Denborarekin ordea, paperak gehitzen eta gehitzen joan ziren, eta geroz eta zailagoa bihurtu zen nahi bezala mugitzea. Gainera, noizbait, norbaitek eskatuko dizkit paperok eta ez dut gehiago eroriko diren beldurrik izango.

Paper horiek zer arraio izango ote ziren galdetzen zion printze txikiak bere buruari, baina mutilarentzat zuten garrantzia susmatuta, goxoki galdetzen saiatu zen.

–Jakin al daiteke zer diren paper horiek?

Tinkotasunez erantzun zion mutilak:

–Paper hauetako bakoitzak ni nor naizen eta zertarako gai naizen azaltzen dute; eta haur bat besterik ez zaren arren, jakin ezazu etorkizunean hauek gabe ez zarela inor izango. Paper hauek gabe inork ez daki zer dakizun, non ikasi zenuen dakizun hori eta zenbat aldiz frogatu duzun dakizun hori.

–Eta zer da hainbeste dakizuna?

Mutilak behera begiratu eta arreta lapurtzen ziola egotzi zion era zarkarrean.

Printze txikia arduratzen hasia zen, eta berak zein paper gordetzen zituen pentsatzen jardun zuen denbora batez. Goibeldu zitzaizkion bere begi txikiak, poltsikoan zeraman paperaz oroitu zen arte. Eskua patrikan sartu eta hegazkin gidariak egindako marrazkia luzatu zion.

–Hasiera batean arduratu egin naiz, baina lasai noa orain, ni ere paper baten jabe banaizelako. Gainera ez edozein paper! Begira, nahi dudan guz-

tia kaxa honen barruan ezkutatzen da. Ez dakit zenbat kaxa izango dituzun zuk hainbeste paper izanda, baina orain irudika dezaket soinean daramazun balio guztia.

Printze txikiak bere bidaian jarraitu zuen, eta mutil hura ezagutzea gustatu zitzaion arren, oraindik pertsona nagusia ez izanik, beraiek bezain serioa zela iruditu zitzaion. Gainera haiek bezala, honek ere hitzak nahastetzen zituen: marra zuriaren gainean egunak eta egunak igarotzeari abentura deitza ere...!

*Aitorri emango dio Maddiri oparitu diezaion, eguna iristen denean, ni ez naizenean. Bere gustuko marrazkidun paperetan idatzita.

2012ko azaroak 22

Pozik. Nola dakit? Beharbada eguna gogoz bizitzen ari naizelako; astuna ez delako. Beharbada gaur, asteazken buruzuri euritsu bat besterik ez delako. Ez bihar, ez uda, ez iraila. Asteazkena soilik. Eta agian hori ere ez

2012ko azaroak 24

–Oin hutsik ibiltzen ba al dakizu?

–Nik oraindik ez.

–Begiak itxita begiratzen?

–Nik batzuetan.

–Eta infinitu-arte zenbatzen?

–Ez zait zenbatzea gustatzen.

–Ba al dakizu ezustekoa ilusioz jasotzen?

–Nik bai.

Gaur Dorleta eta Ainhoa etorri dira, eta eskuz egindako bufanda more bat oparitu didate. Malkoak erori zaizkit masailean behera.

2012ko azaroak 26

Aitorri erregutu diot bere indar guztiak xahutu ditzala Maddi herren sentitu ez dadin, bere galerak eztitzeko eskatuz, beti hurbil mantentzeko zin eginaraziz.

Ohean mugitu ezinda nagoenetan, Maddi pixka bat nagusiago dela irudikatzen dut. Jostakin azaltzen zait, pozak tristura gainditu balu bezala.

Horrela irudikatu ezean amaiera jasanezina litzateke.

2012ko azaroak 28

Amak ateko zulo txotik begiratzen jarraitzen du.

Ikusiko ditu zure irriak eta malkoak,
sehaska kantak abestuko dizkizu zirrikitutik...

Ilargiari begiratzen diozunetan,
indarrez eutsiko zaituzten bere begiek.

Bi begi nahikoa direlako babestuta sentitu gaitezen.

2012ko abenduak 6

Gabonetarako geroz eta gutxiago falta da eta Maddi pozarren dago. Nire gorputzari ordea nekea dario alde guztietatik. Ez dut mediku gehiago bisitatu nahi. Ez dut malko gehiago isuri nahi. Ezin dut jasan alabatxoaren zorriona ezin gozatzea.

2012ko abenduak 9

Heldu-leku.

Min-bizia.

Min-leku.

Heldu-bizia.

Heldu mina,

bizi lekua?

2012ko abenduak 17

Bart hil-bera omen zegoen. Aitonaren baratzean igarotako momentuez oroitu naiz bat-batean. Ilea mozteko eta zenbait hazi ereiteko egun aproposa omen da.

Niri aitzurraz eskuak erauzi dizkit.

Oraingoan naturak ez du garbi jokatu.

2012ko abenduak 22

Mina, Tristura. Egonezina. Herstura. Atsekabea.

Izenik ez duen hori, nola hustu?

Hitz eginez ezin esan, idatziz ere ezin iritsi.

Agian norbaitek besarkatuko banindu...

Agian egun osoa lotan pasa eta ametsen batean azalduko balitz...

Agian komuneko zulotik behera oka egingo banu...

Edo hementxe bertan. Ene ohean.

Agian kolonia pixka bat bota, kalera irten eta ezikusiarena egin ahalko banu...

Agian idatziz, egunak eta egunak igaroz, bere izena aurkituko nuke. Behingoz esan eta kanporatuz.

Gehiago minik ez sentitzeko. Ezagutzeko. Nonbaitetik heldu ahal izateko.

Ez dugu guztia izendatzerik lortu.

Ezin dugu den dena adierazi. Ez eta aukeratu.

Hau idatzi ostean, berdin gelditu naiz. Esan ezin ditudanez gainezka.

2013ko urtarrilak 8

Eskerrak gabonak igaro diren. Infernu bat izan da, bortxaketa bat, disimulu etengabe bat. Gezur hutsa. Baina oraingoan ere ezin Maddi tristuratik babestu.

2013ko urtarrilak 23

Amak gaur 70 urte beteko lituzke. Berak alde egin eta bi urtera alaba atzetik. Eskerrak hori ikusi aurretik joan zen.

2013ko urtarrilak 27

–Ama, zergatik zu?

Ezin jasan egiaren oihartzun gupidagabea, ezin jasan erantzun ezina.

–Maitia, amatxo ez bada egongo ere, zuk benetakoa izaten jarraitu.

2013ko otsailak 3

Nik ere baneki poza nola hazi,

ametsetan nola bizi,

mina nola saihetsi.

Erakutsi iezadazu...

Nik ere baneki nora egin jauzi,

erortzeko beldurra nola gutxietsi,

egun bakoitza nola hasi.

Nik ere baneki bizi apurrei nola eutsi,

osasuntsu nintzen garaiez nola ahanzi.

Erakutsi iezadazu...

2013ko otsailak 7

Igor Elortzaren bertso bat entzun berri dut Hitzetik Hortzera programan, eta esaera batek hausnarketara bultzatu nau: *Gogotik ordaindu genuen.*

Merkea benetan garesti ateratzen den esperientziez ziharduen; diruz inoiz ordaindu ezin ahalko diren guzti horietaz; borondatea, ilusioa, motibazioa ala desioa kasu.

Bizitzeko indarririk sentitu ez eta egunari aurre egitea kosta egiten zaigunetan ere, gogotik ordaintzen dugu gizakiok.

2013ko otsailak 9

–Aitor...

Adi begiratzen nau, begiak zabal zabalik.

–Zergatik ni?

Negar malkotan urtu gura, gorputz biluziak estu besarkatu bitartean. Bere azala eta nirea bat direla sentitzeko beharra daukat, mina hartu arte estutuz nire bularren kontra.

Ezin du, ezin da, amildegi bat dago bere eta nire gorputzaren artean.

Bizitza gure besarkada bezain gordina eta biluzia bilakatu da, korapilatsua oso, oinazea eta maitasuna gorputz berberean nahasten direnean bezala, istant berdin batean.

2013ko otsailak 10

Geroz eta zailagoa zait boligrafoa esku artean eustea, paper zurian idaztea.

Minbizia bistaratu zenez geroztik, hitzak inoiz baino lagungarriago diraute ene barruan, inoiz baino indartsuago. Zorionekoa ni idazteko zaletasuna galdu ez izanagatik. Koaderno hau helduleku bilakatu da, baina tamalez bereganaino iristeko bidea geroz eta malakartsuagoa bihurtzen ari da.

2013ko otsailak 26

Etorkizuna betiko galdu dudala pentsatzea gogorra egiten zait. Akaso horregatik igarotzen ditut orduak eta orduak iraganarekin zerikusia duen edo-

zer usaintzen: argazkiak, arropak, liburuak, casette-ak... eskuekin harra-patu nahiko banu bezala, zerbait behintzat nire esku dagoela sentitzeko, den dena lapurtu ezingo didatenaren itxurak eginez.

Gaur ere betekada eragin dit joandako garaiak arakatzeak. Eguneroko batekin egin dut topo. 16 urterekin idatzitakoa.

Bertan aurkitutako ipuin batek lur jota utzi nau. Aitor eta Maddi ikastolatik iritsi dira eta lurrean botata aurkitu naute, zoro bat banitza negar zotinka eta oihuka.

Oraingoan ezin izan dut ekidin zerraldo erortzea.

Ipuina (ez zuen izenbururik)

Badoa aitona bidean aurrera, bastoiak ematen dion segurtasuna ezin saihestuz, eta pausoa nahi baino motelago arrastaka. Pozarren nabari du bere bihotz zaharkitua, eguzkiaren izpi bakar bat ere galdu gabe, bideko ibiltari oro irribarre apalaz agurtu bitartean

Goizero ibilbide berdina egin ohi du, haurren jolas-orduko zalaparta eta jubilatuen presarik eza nahastea atsegin baititu. Gustatuko zitzaiokeen jolas tokian salto eta brinko ari diren mutil koxkorren bat bere iloba izango balitz –beti izan baita umezalea–, baina tamalez Rosario zenak ezin izan zuen amatasuna dastatu.

Hala ere oso zoriontsu bizi izan ziren elkarrekin. Denbora luzean maite izan zuten elkar, alzheimer madarikatuak bere emazte kuttuna behea jotzeraino nahastu eta beso artetik erauzi zion arte. Ez zaio ordea honetaz pentsatzea gustatzen, eta horregatik paseatzen du jolas parkeetatik gertu, jada isiltasunak barne zurrunbilo handiegiak eragiten dizkiolako.

Etxean ere irratia, telebista eta garbigailua denak batera izan ohi ditu martxan, zaratak oroitzapenak lapurtu diezazkion.

Betiko jarlekua libre dagoela ikusi eta bertan esertzea erabakitzen du, ezagunen bat hurbilduko zaion esperoan. Beti dago nor edo nor handik; eguneroko ibiltari fidelen bat ez bada, harro-harro iloba txikia zaintzen ari den aitona-amonaren bat.

Nekatu xamar nabari du bere gorputz zimeldua azkenaldian, sasoiko gizona izatetik, egunak eskatzen duen esfortzuaz ohartzera pasa da.

Gauetan ezin lorik hartu eta goizetan ezin lotan jarraitu. Orfidalek adina mesede egingo balio bizitzeko indarrak...

Pozarren nabari du bere bihotz zaharkitua, eguzkiaren izpi bakar bat ere galdu gabe, bideko ibiltari oro irribarre apalez agurtu bitartean.

Egun bat gora behera, irri gozo bat aurpegian duela alde egingo du aitonak, utzi berri duena etsipenez heltzeko beharrik gabe.

2013ko otsailak 28

Oroitu naiz txikitako jostailuez, aitaren gitarraz, nerabe ginela erre genituen lehen zigarroen zaporeaz. Gogora ekarri ditut emandako lehen musuak eta biluztutako lehenengo aldiak, laztantzen ninduten aurpegi arrotzak. Amaren herio eguneko imajinak eta erditu ondoren Aitorri emandako bersarkada. Gaztetako zoramena eta borrokarako grina. Mundua aldatzeko indarra eta fantasia. Nintzena eta naizena. Eduki dudana eta ez dudana. Ametsak eta amesgaiztoak. Zorionak eta zoritxarrekoak.

Baina, ez al nuke ondorioren bat atera beharko ia igaro berri den bizitza honetatik? Nonbait idatzi edo marraztu, antzeztu edo abestu, mundura jaurti. Bide honek ez al du aztarnaren bat merezi zentzua izan dezan? Jenioek utzi izan duten legatua bezala... horrela, besterik gabe hilko al naiz? Hemendik pasa naizela oihukatu gabe, bizia dastatu dudala inor gutxik jakinda. Ama izan naizela eta maite izan dudala. Lagun askok estimatu nautela eta nik haiek. Pianoa jo dudala herriko ekitaldietan. Aratusteetan lehen saria irabazi nuela. Jaunartzean elizatik bota nindutela barrez lehertzen egoteagatik. Bost urtez Mandala tabernako zerbitzari gisa egin dudala lan, eta beste ha-

mar urtetan, zaharren egoitzako erizain bezala. Non gelditzen da hau guztia orain...? Maite nautenen oroimenean? Ez. Denborak oroitzapenak lausotu eta desagerrarazten ditu. Eta hala behar du, beraien biziak aurrera jarrai dezan. Baina ez dut nahi. Ez ditut imajinatu nahi ganbarako armairuan bideo zaharrak bilatzen, nire aurpegiak oroitu ahal izateko, ahaztear nautela sentitzen ari diren bakoitzean.

Hutsala sentitzen naiz. Ezereza.

2013ko martxoak 1

Pozoi gogorra du bai. Gaiztoak dira sugeak. Funtsik gabe kosk egitea gus-tatzen zaie. Baina egia da bigarren koskarako ez dutela pozoi gehiagorik. Honek bakarrik lasaitzen nau. Pozoitua ni izanak eta ez Aitor.

2013ko martxoak 4

Berdin zitzaidan lehen eguna idazteaz ahaztu, edo egunetan ez idaztea. Orain berriz egunerokoaren orri bakoitza dut beharrezkoa, zenbaki zehatzekin, bizirik jarraitzen dudala ziurtatzeko.

Idazten dudan bitartean banaiz.

Bertsoak

*Lehenengo taldea
Saria*



*Gerald Joel Sanchez,
Josu Elizburu eta Julen Murgiondo*

Nire baserria

Nire baserria

(Doinua:Pello Joxepe)

Bergarako mendi puntan dago
nire baserri gorria.
Nik bertan daukat kaiolatxo bat
eta barruan txerria.
Denok egiten dugu lan bertan
delako hau pozgarria.
Denon artean lana eginez
berritzen dou baserria.

Domekan igotzen naiz beti
nere tio Patxirekin.
Igoaz batera jaten dogu
ogixa txistorriakin.
Nere tiok bokadilua
jaten dau ardauarekin.
Nik berriz bokadilua jaten
dot kokakoliarekin.

Pintxua jan orduko joaten ga
gure zaldixarengana.
Zaldixa joaten da beti ere
bere pareko txerriana.
Ordua iritsi da joateko
gure txaltxo txikiana.
Emango diogu biberoitxua
nere amama Sarana.

Grabazioa hemen: <http://www.bergarakoeuskara.net/node/227066>

Bertsoak

Lehenengo taldea
Saria



Josu Gaztelu eta
Markel Laskurain

Bergarako bertso eskola

Bergarako bertso eskola

Bertso eskolan gaude
Markel eta Josu,
astero "Jardun"ean
gabiltza jo ta su.
Asko ikasi eta
jolastu ahal duzu,
hurrengo urterako
izena eman zazu.

Tranpa egin dugula
da gezur ustela
horregatik merezi
dugu guk Txapela.
Bertso saio hau izan da
benetan itzela
eta agurtzen gara
gu biok honela.

Lau pertsonakin hasi
ta bikin bukatu,
baina ilusioaz
guk dugu jarraitu.
Baina biok egonda
gara animatu
ta Koldo Eleizalden
dugu parte hartu.

Grabazioa hemen: <http://www.bergarakoeuskara.net/node/227072>

Bertsoak

Bigarren taldea

1. Saria



Jon Mata

Gazteria

Gazteria

1

Gai polita gaurkoa
ezaguna dena,
ez da amodioa
jardungo duguna;
txikiteoan berriz
entzun daitekeena,
ta askotan gezurrez
betetzen dutena.

2

Gaur egunean gaude
guztien ahotan,
aitona-amonen eta
guraoenetan;
denetik esan dute
gure bizkarretan,
halere guk aurrera
pauso txikietan.

3

Geroaren ateko
giltza dugu eskutan,
oinarritu beharra
gure ametsetan;
lana egin ilusioz
saiatuz benetan,
nahi dugun mundua
eraikiz oinetan.

4

Gazterian bizitza
da gauza nekeza,
ez da kalimotxoa
ta ezta zerbeza;
ikasketak goizean
gero ingelesa,
hau bai dela benetan
bizimodu latza.

Grabazioa hemen: <http://www.bergarakoeuskara.net/node/227119>

Bertsoak

*Bigarren taldea
2. Saria*



*Maider Jauregi eta
Marina Juaristi*

Oporretako egun bat

Oporretako egun bat

1

Ekainak hogeita bat
eskola amaitzean
pistinara bagoaz
korrika batean

2

Motxila belarretan
utzi ta uretara
txapuzoia hartuta
berriz toailara.

3

Kartetan hasten gara
denok jolastera
hamarretakoa atera
ta segi jokora

4

Hirurak heldu dira
goazen bazkaltzera
tripa bete-beteta
siesta egitera.

5

Zazpirak heldu dira
bagoaz jaztera
dutxa bero batekin
taberna aldera

6

Gero Goxoakera
ondoren parkera
lagunekin hitz egin
ta gero afaltzera.

7

Jada hamarrak dira
goazen ba kalera
txiste batzuk botata
barre egitera

8

Egun polit honekin
geratuko gara
“colacao” bat hartuta
bagoaz lotara.

Grabazioa hemen: <http://www.bergarakoeuskara.net/node/227078>

Bertsoak

Hirugarren taldea

1. Saria



Urko Egaña

Ama Euskaraz

Ama Euskaraz

1

Berrogeitamar urte izango
dira Extremaduratik
hona etorri nintzela garai
hartako beharrengatik.
Gaztelaniaz hazi, hezi ta
bizi arren txikitatik
euskaraz arnastera igaro
nintzen, ta hara zergatik:

2

Extremaduratik hamabi bat
urterekin iritsita
ta Azpeiti bezalako herri
euskaldun baten bizita,
hogeitaz inguru neuzkala
aldatu zitzaidan txipa,
nor nintzen eta non bizi nintzen
begiekin ikusita.

3

Nere senarra izango zena
ezagutu nuenean
hemen bizitzea erabaki
genuen. Ta azkenean
ezkon bidaitik heldu orduko
ipini nintzen lanean,
euskaraz ikasten hasi nintzen
lehenbiziko egunean.

4

Lehen semea jaiotzerako
nahi nuen ikasi baina
denbora sarri izaten ohi da
zenbait epe muga haina!
Senarra ta bi semeekin ze
mintza-praktika bikaina!
Euskaraz biziz jaso dut urte
haien nekeen ordaina.

5

Hizkuntza berri bat ikasteak
nola ez izan zailtasunik!
Ez zen inor euskara erreza
zela esaten zuenik.
Ez dut ikusi oinez erori
gabe ikasi duenik
eta gainera oinez ezezik
korrikan ikasi dut nik.

6

Nire euskara zenbaiti gerta
dakioke pobre xamar,
baina euskaraz bizitzeko ez du
hain aberats izan behar!
Euskaraz egin gura nituen
irribarre eta negar
hemen biziko nintzen hurrengo
urte guztietan zehar.

7

Honela bizi izan naiz azken
berrogei urte inguru,
zailtasun linguistiko guztiak
ere gainditu ditugu.
Ta orain semeez gain biloba
txiki bat ere badugu,
ta euskara ikasi izana
eskertuko dit seguru.

8

Bihotzez aholku on bat eman
nahi nieke batzueri,
euskaraz ikasten hasi eta
etsita dauden hoieri:
Mundu honetan ezer ez da ez
errezegi ez zailegi,
nora joan nahi duzuen jakin ta
zeuen bideari segi.

Grabazioa hemen: <http://www.bergarakoeuskara.net/node/227133>

Bertsoak

*Hirugarren taldea
2. Saria*



Nerea Madariaga

Ilusioa lana bihurtzen denean

Ilusioa lana bihurtzen denean

1

Peru mundura etorri
zaigu erantzia
burutikan beheraino
ze elegantzia
zein azkarra den gure
mutiko maitxia
jaio berria baina
geroaz jantzia

2

Irakurtzen ikasi
gero buruketak
ez dira ez makalak
ume honen kezak
baina ohiturak hartzeko
partitatik bueltak
gainditu behar ditu
gurasoen metak

3

Heldu zaigu garaia
egiteko aukera
zifrak alde batera
ta letrak bestera
azkarra zarenez zu
jo ba zailenera
beti amestu dugun
zientziak egitera

4

Karrera aukeratzeko
laster da epea
medikurako ona
zure espedientea
nahiz ta gustuko duzun
oso margotzea
ingeniaritza duzu
onena egitea

5

Arrasate aldera
goizero-goizero
kooperatiba baten
ikasle, bezero
horrenbeste zenbaki
bihurtzen naiz ero
ea zer gertatzen den
bukatu ta gero?

6

Ikasten pasa ondoren
horrenbeste neke
graduazio festan
disfrazatu naute
lana topatuz gero
pozik behar nuke
baina nere barruek
hola ez diote

7

Hau da zama dudana
nik bizkar gainean
oker jokatu izana
nire iraganean
ilusiorik ez da
lana bilatzean
ilusioa lana
bihurtzen denean

8

Jarri izanagatik
amildegi ertzean
margolarien sena
jarri dut aurrean
gaurtikan margotuko
dut koadro batean
pintzelada alai bat
etorkizunean

Grabazioa hemen: <http://www.bergarakoeuskara.net/node/227130>

Komikia

Lehenengo taldea
Saria




Irati Iñarra

Hotelean



HOTELEAN



Komikia

Lehenengo taldea
Saria




Uxue Guadalupe Gantxegi

Estralurtarra



ESTRIBUR TARRA!!!



Komikia

Bigarren taldea
1. Saria




Joseba Carnicero

Postre ederra



POSTRE EDERRA



Komikia


Bigarren taldea
2. Saria



Miren Carnicero

Ilunpean

T/VN PEAN




Komikia

Hirugarren taldea

1. Saria

Jon Erramun Iraegi

Gorabeherak



Komikia

Hirugarren taldea
2. Saria



Gorka Martin

Gomuta Politik



Txistea / Umorezko pasadizoa

Lehenengo taldea
Saria



Iker Manso

Itsasoan galduta

Itsasuan galduta

Mariñel gaztia arnasestuka eta korrika juten da kapitaiñangana eta esaten dotsa:

–Kapitan jauna! Kapitan jauna! Kapitan jauna!

–Zer gertatzen dok halako zaratiakin?

–Ba enbor bati helduta pasau eta gero, bizirik mantentzia lortu daben galdu bat salbatu dogu.

–Ederki! Oso ederki! Oso-oso ederki! Zuekin harro egoteko beste arrazoi bat gehixago. Esaiozu etortzeko, ezagutu nahi dot eta.

Mariñel gaztiak etortzeko esaten dotsa eta besarkada bat emon eta gero honela esaten dotsa kapitaiñak:

–Suerte haundixa eduki dozu. Gutxi dira zure moduko egoera batian salbatzen direnak. Emoiozu eskerrak Jainkuari! Dana dala, oin ez zaittez ezertaz arduratu.

–Baiña nun nago? –esaten dau galduak.

–Non zauden? Titanic-en zaude!

Grabazioa hemen: <http://www.bergarakoeuskara.net/node/227113>

Txistea / Umorezko pasadizoa

*Lehenengo taldea
Saria*



*Nicole Suarez, Maria Ondo Bote,
Jorge Luis Chavez, Adonis de Jesus
Ventura, Gerald Joel Sanchez eta
Merlyn Garcia*

Elkarri tiroka

Elkarri tiroka

Bi mexikar elkartzen dira eta...

–Ale manito, ze izen daukazu?

–Ni? Ni naiz Pepe Galleta

Bestiak hartzen dau pistola eta pummm!

–Hemendik aurrera Pepe Rosquilla!

Grabazioa hemen: <http://www.bergarakoeuskara.net/node/227064>